




BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1994ko urria, 6. zenbakia. Doan banatzen da.




“Aztarna”, kultur ondarea
babestu eta ezagutzera eman



ANDOAINGO

TOPONIMIA LIBURUA SALGAI




2.000 pezeta

ANDOAINGO TOKI - IZEN
GUZTIAK EZAGUTZEKO
AUKERA

ANDOAINGO LIBURUDENDETAN

EROS EZAZU:

DELGADO, ERNAITZA, IKAS -
JOLAS, MINIKOST, edo STOP



MANUEL LARRAMENDI

Kultur Bazkuna

ZU BAZKIDE EGIN ZAIN GAUDE

Egoitza orokorra: Dr. Huizi kalea, 15-1, ANDOAIN ☎ 30 07 33

2. INKESTA: Eta zu, udazkena iritsita, ez al zara pixka bat tristeago sentitzen?
4. BERRIAK LABUR
7. ZIKULU SALTSA: Helduen euskalduntze-alfabetatzea.
10. HERRIZ HERRI
19. ERREPORTAIA: Jardunaldi arkeologikoak.
22. ELKARRIZKETA: Xebe Iglesias billabonatarra. Pintura afizio baina ez ofizio.
24. BASERRIAN: Europa Elkarteko Nekazal Politika.
26. KULTURA: Andoain: Agustin Leitza, herriko seme kuttuna.
28. KIROLA: Andoain: Maite Etxezarretak *slalom*-a eta *boccia* kirolak egiten ditu.
30. ZAHARRAK BERRI: Billabona: Santiago etxea, harrera oneko etxea.
31. ENPRESA: Andoain: Irusoin, telebistarako produkzio eta postprodukzio lanak.
32. BEGI ARGIA: Eloi Egibar. Euskaltzaindiaren batzarra.
33. HEMEROTEKA
34. HOTS, HOTS!! SUKALDE TXOKOAN
35. MERKATU TXIKIA
36. ZURE HIZPIDEA
37. AIURRITARRAK: Imanol Murua. Hauteskunde fikzioa.
38. LEHIAKETA
39. AGENDA
40. PASADIZUAK



MLARRAVENDI



Aldizkari honek Eusko
Jaurantziako Kultura sailaren
laguntza jasotzen du.




Aldizkari honek Gipuzkoako
Foru Aldundiko Kultura
Departamentuaren laguntza
jasotzen du.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldi-zkarian adierazitako esaneren eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzio Batzordea:** Eloi Egibar, Manu Etxezortu, Jone Larrañaga, Mikel Maiz, Jon Unanue. **Erredakzioa:** Maider Barandiaran, Txomin Etxeberria, Agosti Garmendia, Xabin Mujika, Ainhoa Oiartzabal, Agurtzane Ormaetxea, Idoia San Sebastian. **Laguntzaileak:** Joxe Eizmendi, Imanol Murua **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G.Erro **Publizitate arduraduna:** Aitziber Iraola. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** SORTU s. coop. **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

Eta zu, udazkena iritsita, ez al zara

Udazkena etorri dela eta, jendearengan guk uste baino eragin txikiagoa dauka. Berez, beharbada, ez luke pertsona tristeago sentitzeko arrazoirik egon behar, baina udaberriak eragiten omen duen bezala, udazkenak ere zerbaitetan eragingo zuelakoan geunden gu. Kalera irten eta, zer aurkitu dugu? Gehienak ez dira batere kezkatzen urtaro bat dela edo bestea dela, horretan pentsatzeko apenas hartzen dute astirik gehienek, eta beste askok ez dute ezer berezirik sentitzen. Egia da -hala esaten dute behintzat- urta-roak ez direla lehen ziren bezalakoak, baina tira..., udazkenak hori baino gehiago ez sujeritzea.



Domingo Sarasola, baserritarra. Asteasu.

Udazkenean deprimitu? Gustora ibiltzen naiz ni udazkenean, mendira joan, ehiza egin... Udazkena nahiago izaten dut nik uda baino. Ez du eguraldi onik egiten, baina mendian ibiltzeko ona izaten da; izerdi gutxiago egiten da. Aurtengo udazkena oso ona ez da, baina ez naiz ni, hala ere, eguraldiagatik deprimitzen; babarrunak ez heltzeak kezkatzen nau gehiago. Eta horrelakoetan ez dago zer eginik; egotea besterik ez, errezatzea alperrik da eta...



Laura González, neskamea. Zizurkil.

Egia esan behar baldin badizut, ez dakit zer erantzun. Pena pixka bat ematen dit egunak laburtu eta lehenago iluntzen duenean, baina normal... Eguraldi txarrak egiten hasteak ere ematen dit amorru pixka bat, dena den, urrian irailan baino eguraldi hobea egin du. Nik, gainera, ez daukat deprimitzeko astirik, goizetik gaue-ra arte egiten dut lan, penaz edo alai aurrera egin behar da, eta ez dut horrelakoetan pentsatzen.



Martin Bengoetxea, lurperatzailea. Billabona.

Lehenago iluntzen duela bai, baina gainontzean, ez diot inongo inportantziarik ematen. Uda izan edo negua izan, hemen asuntoa beti bera da (kanposantuko bere lanari buruz ari da hitz egiten). Lur emateak ez nau ni batere deprimitzen. Txarra izaten da, hala ere, udan egun argiz egiten dela lan, eta neguan berriz, ilundu eta gero egin behar. Baina, igual-igual, gu hemen gaudela baten batek merienda ekarriko balu ere, igual-igual...



XIXORI

BELARDENDA


DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN



ONDARRETA KALEA, 7 - TELF. 591759
20140 - ANDOAIN

pixka bat tristeago sentitzen?



Pello Lasa, langilea. Aduna.

Beno, udazkenean beti ere deprimituagoa egoten zara. Udan festak eta, izaten dira, eta beti ere animatuagoa. Dena den, lehen eskolara joaten nintzenean gehiago deprimitzen nintzen, orain lanean hasi naizenez geroztik, ez hainbeste. Eta deprimitzen naizenean, ahal den bezala saiatzen naiz eguna pasatzen: kirola egin, pasatzera joan. Hala ere, egia da, orain ere zerbait nabaritzen dut udazkena iristean.



Juan Maria Alkaiaga, linterneroa. Zizurkil.

Ni ez naiz batere deprimitzen, aldrebes: etxera lehenago erretiratu, familian bildu... Udazkena etortzea gauza normala da, uda edota udaberria iristen diren bezala. Udan gainera, nere ofizioagatik, gaueko hamarretan joaten naiz ni igual etxera, ilundu arte lanean aritzen naiz. Garai honetan berriz, lehenxeago joaten naiz, zortzietako etxean egoten naiz. Ez daukat nik, gainera, deprimitzeko astirik, nahikoa lan izaten dut nere lanarekin: batak utzi dizkidan zorrak direla, besteari lehenbailen bukatu behar zaiola lana... Deprimitu?!



Ester Gil, banatzailea. Andoain.

Neregan urtaro aldaketak ez dauka batere eraginik, ezta batere, gainera. Egia esan, eguraldia txarrera egiten hasten denean, gero eta gogo gutxiago izaten duzu etxetik irtetzeko, baina... Oporren ondoren egunerokotasunera itzultzea, hori, beste gauza bat da; hori bai dela gogorra! Baina tira, honi ere berehala hartzen zaio martxa, eta konturatu baino lehen ohitzen zara. Gainerakoan, udazkena izan edo uda izan, antzera.



**Dietetika
eta Belardenda**


ZAINBERRI

Naturopataren kontsulta
Iridologia
Masajea
Estetika

Akupuntura
Ile tratamenduak
Pisu terapiak

Pablo Gorosabel, 6 - ☎ 65 21 86
Kale Nagusia, 7 - ☎ 59 13 99

**TOLOSA
ANDOAIN**



MAPFRE

ASEGURUAK

ERANTZUN ORAIN
ZURE ETORKIZUNARI

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

Aduna eta Asteasu Meangera-rekin anaikidetu dira

Zizurkilgo Udalak gonbidatuta El Salvadorreko Segundo Montes komunitateko Meangera udalerriko ordezkariak izan da aste batzuetan gure herrietan. Parajeak ezagutzeaz gain, hemengo Udaletako funtzionamendua, ikastetxeetako martxa eta une honetan salvadortarrak kezkatzen dituen zenbait arazoei gure herriek emandako irtenbideen bila etorri dira, gehienbat. Izan ere, hamar urtez Hondurasen errefuxiatuta egon ondoren, euren jaioterrira itzuli eta udalerria eratu eta antolatzen ari dira une honetan. Meangeran lehenengo urratsak ematen hasiak dira, baina oraindik ere kaleak urbanizatzeaz dauzkate, argindarra ezartzeaz, etxe asko egiteaz, eta batez ere gobernuak onartuko duen izaera juridikoa euren Udalari emateaz. Asko dira, beraz, arazoak, baina baita ilusioak ere.



Duela gutxi izan ziren Zizurkilgo Udaleko ordezkariak Segundo Montes anaikidetze hitzarmena eginenez. Itzulerako bidaietan salvadortarrak nazioarteko elkartasun bila etorri dira Euskal Herrira. Eta euren esanetan aurkitu ere aurkitu dute, "harrera ezin hobe egin digute, eta gauza asko ikasi ditugu" adierazi zuten Asteasuko Udal Batzuan. Alkartasun seinale izan dira, hain zuzen ere, Aduna eta Asteasuko Udalekin egin dituzten anaikidetze hitzarmenak. Halaber, Tolosaldeko beste herri batzuetara hitzarmena zabaltzeko konpromezua hartu dute hiru Udalek.

Elkarri: "Zuk zer diozu?"

"Zuk zer diozu?" deituriko kanpaina ari da burutzen iraila geroztik eta abendua bitartean Elkarri mugimendu bakezalea. Klean hausnarketa eta parte hartze giroa sortzea dute helburutzat antolatu dituzten herri eta auzoetako hainbat eta hainbat tailerrek.

Euskal gatazkaren zergatiak; giza eskubideak; bizitza eskubidea; autodeterminazio eskubidea; euskara eta euskal kultura; ETaren indarkeria; Estatuaren indarkeria; indarkeriaren biktimak; euskal presoak eta elkarrizketa ereduak dira Elkarri herri guztietan egin duen inkesta baten ondorioz herriz herri herritarrek eztabaidatzeko aukera izango duten gaiak. Eztabaidak egiteko herrietako tailerretakoek zenbait pertsona aukeratu eta eztabaidara gonbidatuko dituzte.

Zizurkilgo hain zuzen ere eztabaida hauez gain, bideoak ari dira banatzen etxeetan aipaturiko gai horien inguruko kezkek eta eztabaida eragiteko. Ez da derrigorrezkoa bideoa erostea, nahi duenari azter dezan utziko zaio. Bideoarekin batera kaleetan mahaiak izango dira helburu bera duten aldizkari eta diptikoeekin. Andoainen hilaren 13an "Herri eskubideak eta giza



eskubideak" izenburupean alderdi politikoen ordezkariak protagonista izan ziren mahainguru bat izan zen. Gaur hilak 28an afari-tertulia bat izango da herriko jendeaz lagunduta eta Irlandan bizitzen ari diren prozesuaren berri emateko. Azaroaren 10ean hasiko dira Andoainen herritarrek osatutako mahainguruetako eztabaidak.

Billabona-Amasa

Kiroldegia eta Flemingo eskola berriak

Hasi dira ia Arroa inguruko birrintze eta eraikuntza lanak. Subijanako pabiloia bota dute kiroldegia egin eta jarraian Flemingo eskola publikoko gela



berriak eraikitzeko. 3-6 urte bitarteko haurrentzako gelak eraikiko dituzte, izan ere oraingo eskolak nahikoa zaharkituta daude, neguan hotza handiak izaten omen dituzte eta hezetasuna ere nabaria omen da.

Duela hiru urte egin zuten Udalaren ekimenez eraikuntza berriaren lehenengo proiektua, 60 milioitakoa alegia. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak 10 milioitako dirulaguntza aurrikusi du urte honetarako lanak egiten hasteko. Udaletxean adierazi digutenez abenduan hasiko dira eskolako lanak eta hurrengo ikasturtean hurrek eskola berriari hasi ahal izango dituzte klaseak. Udalak momentuz ez du erabaki beste eskolako lokal zaharrek zer egin.

Lan hauek direla eta Arroako ibilbideko konpontze lanak ere amaituko dituzte. Izan ere, karela eginda zegoen, baina inongo babesik gabe. Eta aurrerantzean haurren joan-etorriek arriskua areagotu dezaketela pentsatu dute.

Billabona

Aste kulturalak herritarren arreta bereganatu du

Bihar larunbata emango zaio amaiera astebetetz iraun duen aste kulturalari. Jende ugari hurbildu da Gurea antzerki aretoan antolatutako ekitaldietara. Joan den larunbatean eman zitzaizen ekitaldiei hasiera Xabier Lizaso eta Ludwik Hamelaren piano eta bibolin saioaz. Igandean berriro ere musika entzuteko aukera izan zen, "Musikabi" kamara orkestrak eskaini zuen saioaz. Halaber, asteleheneko "Gipuzkoa 1915-1945" izeneko diaporama saioak jende askoren arreta piztu zuen. Asteartean poesia izan zen protagonista Felipe Juaristi eta Juan Kruz Igarabideren errezitaldiarekin. Bihamunean Traspasos dantza taldeak bere ikuskizuna taularatu zuen Gurea antzerki aretoan. Eta ostegunean Bernardo Atxagak zenbait literatur testuen irakurketa egin zuen. Ostiralean Bederen I taldeak "El alquiler" izeneko antzezlanaren estreinatu zuen. Bihar larunbata, eta aste kulturalari amaiera emateko, hurren zuzendutako ikuskizun bat izango da. Saioak "Mama" du izena eta antzerki, diaporama eta bideoz osatutako ikuskizuna eskainiko dute. Gauean bertsolariak izango dira. Halaber, aipatzekoa da herriko zenbait artisten lanen erakusketa izan dela.

Dohainik 400 pzt

fotocolor
ERREBELATUA ORDURAN

Txartel hau erabiliz 400 pezeta gutxiago ordainduko duzu (24 x 30) argazkia handitzea

**prezioa - 735 pzt
txartela - 400 pzt
ORAIN - 335 PZT**

Kodak EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

BENTA
Sagardotegia



Espezialitateak, bakailua tortillan, saltsan eta frijitua, txuleta, kostilla

SORABILLA-ADUNAKO ERREPIDEA
☎ 69 30 94

EROSO, S.L.


Gas eta Berogailu Instalakuntzak
Gas Naturala, Propanoa eta Hirikoa

ZURE NEURRIKO AURREKONTUA EGINGO DIZUGU

DEI ONDOKO TELEFONO HAUETARA:


DONOSTIAKO BULEGO NAGUSIA: ☎ 39-11-05

IRUN-HONDARRIBIAKO ORDEZKARITZA: ☎ 62-18-64



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

AIURRI

BETERRIKO ALDIZKARIA

MUSUTRUK DEBALDE

Bidal iguzu izen-emateko txartela edo dei ezazu **30 07 32** zenbakira

AIURRI ALDIZKARIA ETXEAN JASO NAHI DUT HILERO DOHAINIK

Izen-deiturak -----

Helbidea -----

Herria -----

Helduen euskalduntze alfabetatzea

Gero eta lan handiagok ematen ditu ikasleak euskaltegira eramateak

Euskaltegiak, euskara, ikasleak, administrazioarekiko harremanak izan ditugu, besteak beste, hizpide Billabona eta Andoaingo euskaltegiak elkartuta. Nahi eta uste baino gutxiago hitz egin dugu, beste behin ere, ikas-ereduetaz, ikasleen gaitasun eta motibazioaz, euskaldun berrien aportazioaz, eta euskalgintzaren bilakaerari dagozkion beste hainbat gairi buruz. Egun administrazioak ezarriak dituen euskaltegi ereduetaz, dirulaguntzetaz, eta matrikulazio kanpainetaz ordea, luze hitz egin dugu. Izan ere, euskara erakusten ari diren askok arazo handiak dauzkate oraindik ere, aurrera jarraitzeko. Eta hein batean behintzat, gaztetxo gehienek euskaraz baldin badakite ere, euskaldunoi hainbat eskubide aitortu bazaizkigu ere, eta komunikabide zenbait euskaraz badauzkagu ere, hala ere, azkenengo urteetan euskaltegietan matrikulatutakoen kopuruak izan duen igoera txikia edo hutsa, eta hauek euskaltegietera eramateko egin behar den ahalegin izugarria dela esango genuke guk, gure gonbidatuak entzun eta gero, euskalgintzak daukan arazo larrienetako bat.

Andoaingo AEK eta Leizaur euskaltegiak, hala nola Billabonako Udala euskaltegiak orain dela gutxi arte euren herrietako lokal baten baino gehiagotan ibiliak dira. Andoaindarrak Udalak utzitako lokaletan daude gaur egun. Saiatu, saiatu omen dira euren lokal propioak izaten, baina horretarako ez omen dute nahikoa diru inoiz izan. Bestalde, erdi gunetik urrun samar daudelako ere kexatu dira.

1.984ean homologatu zitzaion Leizaur euskaltegia HABEri. Pribatua izanik, HABEtik lortzen dituzten dirulaguntza eta matrikulei esker mantentzen dute euskaltegia. Andoaingo AEK euskaltegi libreak askoz diru gutxiago jasotzen du Eusko Jaurlaritzatik, eta iaz



Andoaingo Leizaur euskaltegia

adibidez, pezeta bat ere ez, Jaurlaritza eta AEKren arteko aspaldiko auzia dela medio. Udaletik, biek jasotzen dute bost pezetako dirulaguntza ikasle orduko, bien ustez oso laguntza urria. Ikasleentzako beka sistema ere duela bi urte ezarri zuen Udalak. Aurten hasi omen dira orduko ikasleak beka kobratzen.



Joxemi Aranburu, Andoaingo AEK euskaltegiko arduraduna:

"Andoaingo Udalak ez dio inoiz behar bezalako garrantzirik eman helduen euskalduntze-alfabetazeari, ematen dituzten dirulaguntzak ikusi besterik ez dago. Orain egora ekonomikoa kaskarra delako, baina hobea zenean ere, gure egoera antzekoa zen..."

... Andoainen bi euskaltegiak erdi gunetik nahiko urrun gaudela iruditzen zait. Udalak baditu lokalak herri erdian, eta beste hamaika gauzetarako erabiliko badira ere, euskaltegiek ezin dituzte inoiz erabili..."

... Izaera ezberdina duten euskaltegiak herrian bertan lana egitea posible da, ez du zertan txarra izan behar, baina euskaltegiaren egoera normalizatu egin behar da..."

... Jendea euskaltegira etor dadin konbentzitu egin behar duzu..."


... Gizartean euskararen beharra zabalduko balitz..."

... Pertsona bakarra euskalduntzea aportazio handia da ia..."

Zikulu saltsa

Billabonako euskaltegiaren eredia ezberdina da; Udalaren habesean egon arren, ez dauka Udal izaera, hitzarmen baten bitartez daude bi erakundeak lotuta. HABEk emandako diruaz gain, euren aurrekontua osatzeko adina ematen die beti Udalak. Nahiko harreman ona daukate euren esanetan, Udalarekin dirulaguntzei dagokienez behintzat. Kezka berriz, HABEtik datorkie, izan ere HABEk ez dauka bere baitan hitzarmeneko euskaltegiaren eredia ezarrita eta, nola edo hala, pribatu edo publiko sailkapen horietan sar dadin ahalegintzen ari da. Billabonako eredia askoz ere hobea eta arrazionalagoa delakoan daude andoaindarrak.

Eredu egokiena zein izan daitekeen ez daukate oso garbi



Andoaingo AEKeuskaltegia

Andoainen izan ziren orain dela sei urte inguru Udal euskaltegi bat irikitzeko saiakerak, baina arazoak beste biekkin zer egin ez zekitela geratu zirenean sortu ziren. "Egun ordenantzetan oraindik ere Udal euskaltegiaren egitasmoa onartuta baldin bada ere, Udalak ezin dio horrelako diru

pen handia ez badirudi ere, euskaltegiko irakasleei ez zaie lorpen txikia iruditzen euren lanpostuak mantentzeko adina ikasle bereganatzea. "Euskalgintza krisian dagoela esatera ez nintzateke ausartuko" dio Joxemik "baina egia da gero eta zailtasun handiagoak dauzkagula ikaslearengana iristeko".

kargari une honetan erantzun", dio Joxemi Aranburuk, AEKko arduradunak. Baina, hala ere, euskaltegien izaerari dagozkion beste galdera batzuk ere geratu dira erantzun ezinik: "Zein litzateke eredurik egokiena? Eta bat ezerriz gero, zer gertatuko litzateke beste euskaltegiekin?".

Matrikulazioa

Bileran entzundakoak entzun eta gero, sinetsi dezake irakurleak ikasleak euskaltegira eramatea ez dela batere lan erraza: "Lehen nahikoa zen iraila hasieran kartel batzuk jartzearekin, orain goitik behera pasatzen ditugu kale guztiak, telefonoz deitzen diegu ikasleei, gutunak bidaltzen dizkiegu..." aitortu digute hiruek. Eta hala ere, azkenengo urteetan matrikula kopuruak ez du gora egin, mantendu egin da, "lehen egiten genuena egin ez, ikasle kopuru erdia izango genuke" dio Arantxa Urkizu Billabonako arduradunak, "ikaslea konbentzitu egin beharra dago" gaineratu du Joxemik. Euskalgintzari dagokionez lor-



Maria Jesus Elozegi, Andoaingo Leizaur euskaltegiko zuzendaria:

"Lokal propioak ez edukitzea da egun euskaltegiok daukagun arazorik larriena, eta ematen dizkiguten dirulaguntzekin ez zaigu beste ezertarako iristen..."

... Andoaingo Udalari iruditzen zaio euskara ikasi nahi duten ikasleei bekak eskainiz bere lana bete duela ia...

... Euskaltegi guztiok izaera bera? Baina ze izaera? Munizipala? Pribatua? Libre? Hitzarmenekoa? Beste sare bat sortzen bada, gaudenok desagertu egin beharko dugu...

... Lehen propaganda egiten zen, egin behar zelako, orain ezinbestekoa da, azken finean, zure lanpostua dago jokoan. Lanpostua mantendu nahi baldin baduzu, ikasleak behar dituzu...

... Euskaldunak ez du alfabetzearen kontzeptua ongi ulertu. Euskaldunak lehenengoak dira euskaraz ez dakiten erdaldunak kritikatzeko, baina beraiei ez zaie burutik pasatu ere egiten alfabetzea...

... Euskara beti uzten da besteen esku edo ardurapean...

... Euskalduntzen dugun ikasle kopurua baino, euskara zenbaitek mantentzen duen jakitea da garrantzitsua...

... Ingelesa ordaintzea normala iruditzen zaie; euskara ordaintzea ez hainbeste..."

“Ikaslea euskaltegira eramatea gero eta zailagoa da”

Dena den, konbentzitzen zailenak euskaldunak berak direla ematen du, izan ere, oso gutxi dira sortzen diren alfabetatze taldeak. “Euskaldun askori alfabetatuta dagoela iruditzen zaio” dio Joxemik, “eta beste askok ez dute alfabetatze kontzeptua bera ulertu” gaineratu du Maria Jesus Elosegik, Leizaur euskaltegiko arduradunak.

“Jendea euskaltegira etor dadin konbentzitu egin behar duzu”

Ez dira erantzule bakarrak

“Gizartean euskararen beharra zabalduko balitz...; erdal jatorriko euskaldunei euskaraz egingo balitzaie...” hauek eta beste batzuk izan dira bota dituzten baldintzetako batzuk, euskaltegiko ikasleak euskara behar bezala ikasi eta gero erabil dezaten, hala nola, jende gehiagok euskaltegietara jo dezan. Ale batzuk baino ez omen dira euskalduntze prozesu osoa egiten dutenak. Bidean asko eta asko gelditzen dira, urrats bat eta bestearen artean aurrera egin gabe. Zergatiak, ez omen daude gehienetan euskaltegietan bertan, atetik kanpo baikik. Eta atetik kanpo helduak omen gara erantzukizun handiena daukagunok, “euskaren arazoa” besteen es-

kuetan uzteagatik gehienetan, alegia, euren seme-alabengan guraso erdaldunek, eta politiko, arduradun eta ur handitako arrainengan euskaldun askok.

“Erdaldun asko baztertuta sentitzen da”

Euskaltzaleen ekimenez, Donostiako euskara taldeak euskaldun berriei laguntzeko bultzatu duen ekimena ere eman nahi izan dute ezagutzera, hau da, solaskide batzuen laguntza ematen zaie euskara ikasten ari diren ikasleei euskaltegiak ikasitakoa praktikan jar dezaten.


Gure solasaldia bukatu aurretik ezinbestez galdetu behar izan diegu lau irakasleei euren lana eskerronekoa den ala ez. Gogorra dela denek aitortu digute. Euskalduntzen den ikasle kopurua kontuan hartuta, ez nahi adina eskerronekoa. Hala ere, euskaltegiek nekez egin dezakete, euren ustez, egiten dutena baino gehiago, “ez da gurea euskalgintzaren erantzukizun osoa, eskola ongi ematea da gurea, eta horretan jartzen ditugu gure indar guztiak”.



Mila Iztueta, Billabonako Udal euskaltegiko irakaslea:

“Oraindik ere, nabaritzen da nolabaiteko bereizketa gizartean: euskaldunak alde betetik, erdaldunak bestetik...”

... matrikulazio garaian gainean ez bazaude...”.



Billabonako euskaltegia



Arantxa Urkizu Billabonako Udal euskaltegiko arduraduna:

“Harreman onak dauzkagu Udalarekin. Orain arte behintzat aurkeztu diegun aurrekontua beti onartu dute. Hala ere, Udalak baditu Billabonan lokal gehiago, baina sortzen diren talde eta ekintza guztiak euskaltegira bidaltzen dituzte...”

... HABE gure atzetik dabil bere ereduak batean kokatu nahian, izan ere, gu ez gaude berak nahi lukeen bezala sailkatuta...

... Matrikulazio garaian lehen saiatzen ginena saiatuz, askoz ikasle gutxiago izango genituzke...

... Gezurra baldin badirudi ere, ni oso harrিতuta gelditu nintzen Billabonako erdaldun asko oso baztertuta sentitzen direla jakitean...”.



Jesus Amundarain parroko zena omenduko dute

Elizan nahiz elizatik kanpo egin duen lan oparoa eskertu nahi izan dio herriak

Urriaren 30ean egingo diote 16 urtez Adunako parrokoa izandako Jesus Amundaraini omenaldia. Omenaldi apala, Jesus bera den bezalakoxea, ez besterik merezi ez duelako, horrelakoak, bere esanetan, nekosoak gertatzen direlako baizik. 88 urteko eliz gizon hau Adunatik kanpo ere asko lan egindakoa da, dena den, Adunako herriaren historiari buruz duela urte batzuk egindako liburuskak eta herriari liburutegia osatzeko eskaini berri dizkion 1.200 liburuak direla eta, Udalak omenaldi txiki baina eskerronekoa eskaini nahi izan dio. Jesus eta bere aldamenean betidanik izan duen Paula bere arrebak estimatu dute, zalantzarik gabe, herriaren adierazpen hau.

Udal batzak onartu ondoren, erabaki zen Jesusi oroigarri bat eman eta herritarrei egin duen lana ezagutaraztea. "Omenaldietan antolatzaileek baino ez dute ongi pasatzen, omenduak normalean nekatu besterik ez dira egiten" dio Jesussek irribartsu, izan ere oraindik gogoratzen omen du herriko agoazilari omenaldi egin zioten eguna; bera eta arrebak ospakizunak negarrez eman omen zituzten, hunkituta. Ez du Jesussek uste horrelakorik merezi duenik, hala ere, Udalak herriari egin dizkion eskaintzek, omenaldi txiki bat besterik ez bada ere, merezi zutela uste izan du.

"Aduna erritxoaren monografi edo kondaira"

1989an argitaratu zuen liburua, Jesussek egindako lan mardulago baten laburpena hain zuzen ere. Elizako sakristian aurkitutako txostenetatik,



Jesus eta Paula etxeko atarian

liburuetatik, eta bati eta besteari galdetuz jaso zuen Jesussek informazioa. Azken hiru mendetako Adunako ikuspegi orokorra eman du Jesussek liburuan ezagutzera, oso arlo ezberdinek aztertu dituelarik: geografia, ohi-turak, pertsonaia ospetsuak, eraikuntzak eta abar luze bat. "Aduna erritxoaren monografi edo kondaira berezi bat dijuakizu, ondorengo orrietan, irakurle jator. Baiña atzerritar izkuntzan agertu ere; izkuntza ortan bai daude, lantxo onetan darabilzkidan gertara ta pasarte asko. Orregatik, lendik erderaz daude gai ta herriak, itzez itz izkuntzaz alkatu gabe, lantxo onetan ipintzea egokiena iruditzen zait. Ongi dakit ordea, Adunatarren mintzaeraz izkuntza Euskara dala, eta Euskeraz

idaztea dagokidala lendabizitiko", dio Jesussek sarrerako orrian. Horregatik, erantsi zaio liburuari hasieran euskarazko laburpen txikia. Ignacio Telletxea Idigorasek goraipatu du Jesusen lana liburuaren hitzaurrean.

1.200 liburu inguru eskaini dizkio, halaber, herriari liburutegi berria osatzeko. Han hemen, urteetan Jesussek biklutako liburuak, hain zuzen ere. Besteak beste, On Joxe Migel Barandiaranen liburuak, Zubillaga jesuitarrarenak eta Auspoa bildumako gehientsuenak.

Jesussek beti izan du herrien historian arakatzeko kezka eta ardura, izan ere, Adunara etorri aurretik Araban, Santa Lutzin, Santa Agedan, Bidanian eta Leitzan ere ibilia da, eta horrelako beste liburuska bat ere eginda dauka. "Gogoia edukiz gero, badago lana non egin" dio Jesussek, bere ustez apaizak

eliza barruan nahiz kanpoan egin behar baitu lan. Asko dira bere ustez apaiz batek herri batean egin beharreko lanak: "lehenengo eta behin, herritarrei zuzenbidea eta gizabidea erakutsi, Jangoikoa bilatzen lagundu eta herritarren artean elkartasuna eragin".

Jesussek bere 88 urterekin ez dauka zalantza izpirik berriro gazte izango balitz apaiz bihurtuko litzatekeela esatean, "pozik eta lanean eman ditut nik urte hauek" dio eta horixe da, gainera gazteei bidali nahi dien mezua. Dena den, bai berak bai Paula bera arrebak Elizak Adunan nahiz beste herrietan atzerakada handia bizi izan duela jakin badakite, "krisia izan zenetik -erlijioan krisia- asko atzeratu da Eliza herrian".



Basoa proiektua asmotan geratu

Ikasleei zuzendutako egitasmoa da batez ere

Eva Pelaez Pedagogiako 4. mailako ikaslea, Andoaingo Ekologista Taldeko partaidea eta "Basoa" proiektuaren arduraduna denak aipatu proiektuaren aurkezpena egin zuen taldeak antolatutako "Natur aseta" egitarauaren hitzaldietako batean. Batez ere hurrei begira dagoen proiektu horretan edozeinek ere parte har dezake, irekia baita.

Evak dioenez Euskal Herriko baso autoktonoek gutxitze prozesuan sartu dira eta beharrezkoa ikusten du hauen berreskuratzea. Prozesu horrek luze joko du eta derrigorrezkoa iruditzen zaio etorkizuneko belaunaldiak lan horretan murgilaraztea. "Basoa" proiektuak hori lortu nahi du, ikastetxeen partaidetzarekin. Hiru ziklori zuzenduko zaie programa hau (Haur Hezkun-

tza eta Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntza) ziklo bakoitzari egokituta. "Ekin-tza guztiak, haziak bildu, lurrak prestatu, landatu, baso ezberdinak (hariztiak, pagadiak...) ikusi, aztertu eta abar luze bat, geuk prestatu eta aurrera eramango ditugu irakaslearen laguntzarekin", dio Evak, naturarekin kontaktoan egonez berau baloratzen eta maitatzen ikasteko. Ikastetxeetan berriz, lanak aurreko ekintzekin tartekatuz egingo lirateke.

720.000 pezeta behar dituzte

Lan horretarako bi pertsonaren partaidetza beharrezkotzat jotzen du eta kurtso osorako beraien kostoa 720.000 pezetakoa litzateke. Tresnerirako (atxurak, sardeak, kimatzeko goraizeak eta abar) 141.310 pezeta behar dute. Eta azkenik, dibulgazio materialerako (Zuhaitz Eguneko kartelak, zuhaitz landatzailearen eskuliburua) 220.000 pezeta. Denetara 1.081.310 pezeta. Proiektua aurrera ateratzeko Kaskabeltxa baserrikoek lur sail bat utzi diete, eta dagoneko 700 haritz landatuta dituzte ikasle edota lagundu nahi duen nornahiren zain.

Proiektu hau 1994-95 kurtsoan martxan jarri nahi zuten, eta horretarako Diputazioari dirulaguntza eskatu zioten ekainean, honek dokumentazio ugariagoa eskatu bazuen ere, gaur arte ez dute erantzunik jaso. Beraz eta bukatzeko, proiektua zena asmotan besterik ez dela geratu dio Evak eta aurrean ez dutela martxan jartzetik izango.



Talde ekologistako partaideak

Txomin Etxeberria



LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA

LEITZARAN FINKAK

ETXE BIZITZA ETA
LOKALEN SALEROSKETA
ETA ALKILERRARI
BURUZKO INFORMAZIOA

KALE NAGUSIA, 20 Behea - ☎ 591856 - ANDOAIN



Herriz herri

Leyçaur 3-ak ikusi du dagoeneko argia

Gaurkotasuna eta originaltasuna dute ezaugarritzat aurtengo lanek

Sebastian Leitzari buruzkoa da lanetako bat, Agustin ohoretsuaren anaia. Leitzak "gramatika gela bat" egiteko dirua utzi zuen testamentuan eta Joxe Garmendiaren ikerketak xehetasun hori aztertu du hain zuzen ere. Andoaingo gizartea bere ordeinetan da beste izenburuetako bat. Eta bertan andoaindarrek, joan den mendearen lehenengo erdialdean batez ere, heriotzari buruz zuten ikuspegia ematen du ezagutzera. Jose Angel Lema, Koro Muro eta Elena Vázquez dira lanaren egileak. Asun Mujika andoaindarrek Andoainen 1850-1915 bitartean izan diren Udal hauteskundearen azterketa egin du, alegia, zentsu bitarteko sufragioa onartu eta artean emakumezkoak kontuan hartzen ez zituen "sufragio unibertsala" deitu izan den arte. "Soldadutzaren ezarpena lege foralaren deuseztapenaren ondoren" da Gorka Alijostesek bere lanari eman dion izenburua, eta hain zuzen ere, andoaindarrek soldadutzara joan behar izatearen aurrean hartzen zizuten jarrerak, eta kasu batzuetan, arazoari ematen zizkioten irtenbideak argituko ditu. Pedro Picavea eta Pedro Barrusoren "Andoain 1.900" lanak garai hartako herriari argazki bat egin nahi izan diote eta gizarteko arlo ezberdinak aztertu: politika, aisialdia, kultura, jaiak... Azkenik, Xabier Lasa andoaindarrek "Euskal antzerkia gerra aurretik eta ondoren" izenburupean aurkeztu du bere lana.

Aurrekoetan bezala, herriaren interesekoak izan daitezkeen agiri batzuk kaleratuko dira eranskin gisa lan hauekin batera: Agustin de Leitzari

buruz Jujuy argitaratutako artikulu baten zatia; Sorabilla Andoaini batu zitzaioneko agiria; 1891ko egunkari batean Andoaingo kronista batek argitaratutako idatzia; UGTk 1936an, frankismo aurretiko azkenengo urtean, maiatzaren lehen ospatzeko antolatu zituen ekitaldiak; eta azkenik, 1944an Acción Católica delakoak bikoteka *dantza xuabea* galerazteko aurkeztu zuen mozioa. Hau guztia, hirugarren *Leyçaur* alean bilduta herriko liburudendetan egongo da salgai 1.500 pezetatan.

Lanei buruzko oso balorazio ona egin digu Karmele Otaegik, eta aurre-

Egun batzuk barru egongo da salgai Andoaingo liburudendetan *Leyçaur 3*, Andoaingo historia ikerketari buruzko aldizkari bildumaren hirugarren alea. Oraingo honetan sei ikerketa emango dira argitara, egileetatik bi andoaindarrek direlarik. Aurrekoenak bezala, bi dira helburuak: ikerketa historikoa eragin eta Andoaingo ondakin historikoa ezagutzera ematea. Hiru lan euskaraz argitaratuko dira, eta gaztele-raz beste hirurak. Halaber, Udal artxibategiko arduraduna den Karmele Otaegik adierazi digunez hurrengo urtean ale berezi bat kalera- tzeke asmoa daukate.


oso harrera ona izan dute, horren lekuko aurtan ere deialdiari erantzun dioten hamasei pertsonak.

Ale berezia

Hurrengo urtean ale berezia kaleratuko dela aurretatu digu Karmelek. 1615 aurretiko Andoaingo historia, alegia Andoain burujabea izan aurretiko historiari buruzko lana kaleratuko da. EHU irakaslea izan zen Luis Miguel Diez de Salazarrek eman zion lan honi hasiera, eta bere heriotzaren ondoren, Rosa Aierbe bere emaztea ari da lana amaitzen.

1990. urtean argitaratu zen lehenengo *Leyçaur* aldizkaria. Bi urtez behin egiten da deialdia, eta inter-

resatuek lanak aurkeztu ondoren, daukaten interes eta egokitasunaren arabera aukeratzen dira beka eskaintzeko. Lanak euskaraz nahiz gaztele-raz aurkez daitezke eta sei hilabete-ko epean egin behar izaten dira: 150.000 pezetako dirulaguntza ematen zaie lana gaztele-raz aurkezten dutenei, 300.000koa euskaraz egiten dutenei. Lanak egin ondoren aholka- laritza batzordea da lanen jarraipena egiten duena. Hurrengo deialdia 1995ko martxoan egingo da.



Karmele Otaegi Udal artxibaria

rantzean ere ale berriak eragiten jarraituko omen du Udalak. Hasiera batean aurkeztuko ziren guztiak XIX-XX mendeko ikerketak izango ziren kezka zeukan Karmelek, izan ere artxibategian urte horietakoa da informazio gehiena. Baina jendeak lanak aurkeztu ahala, konturatu da ikuspegi berriak landuz aztertu daitezkeela gaiak, eta baita aurrekoak esandako zerbaiti buruz tira egin eta osatuz edo ikuspuntu ezberdina agertuz. Bestalde, orain arte lanak ikerlarien artean



X moda erakustaldia

Gipuzkoako misen aurkezpena egin zen ekitaldian

Urriaren 15ean bildu ziren Allurralde kiroldegian 40 modelo herriko arropa, zapata eta bitxi dendetako gaiak ezagutzera emateko. Azaro bete-betean udazken eta neguko modaren berri eman zuten partehartzaileek. Maiatzako saioan izango dugu, era berean, udaberri eta udako moda ezagutzeko aukera. Bi helburu ditu ekitaldi honek: Aita Larramendi ikastolako 2. IEE/REMeiko ikasleek ikasturte amaierako bidaia egiteko dirua lortzea batetik, eta herriko jantzi, zapata denda eta ileapaindegiak ezagutzera ematea. Orain arte batzuek nahiz besteek emaitza onak lortu dituztela pentsa daiteke, izan ere aurtengoa hamargarren moda erakustaldia izan da.




Ikuskizunak liluratuta utzi zuen bat baino gehiago

Ikasleak, modelo ikasketak egiten ari diren gazteak eta bestelako batzuek ere izan dira aurtengo udazken eta neguko moda pasarella pasatu dutenak. Berrogei lagun guztira. Ikastolako ikasleei urtero egin ohi zaie parte hartzeko deialdia, eta hauek gogoz erantzuten diote deialdiari, egun askotan entsaiatzea eskatzen badu ere. Donostiako First Models deituriko eskolako ikasleentzat berriaz, aukera ezin hobea izan ohi da eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko. Orotara hamaika denden arropak erakutsiko dituzte ikusleen aurrean, izan ere ekitaldi honek, besteak beste, Andoainen ere, kanpora joan gabe, jantzi eder eta egokiak eros daitezkeela erakustea du helburutzat.


Ikuskizun osoa

Hilabeteetako lanaren ondoren emaitzak liluratuta utzi izan ohi du bat baino gehiago erakustaldia ikusi duen lehenengo aldiz. Argiak, koreografia, musika, ikasleen itxuraldaketak xarma berezia eman ohi diote ikuskizunari. Izan ere, aurtengoa ez da alperrikakoa izan Inaki Oiartzabalek muntai lanetan eta Pili Jimenezek zuzendaritza eta koreografia lanetan egin duten eginahala.

Aurtengo saioak gainera, izan du berrikuntza edo sorpresa bat; Gipuzkoako misen aurkezpena egin baita erakustaldian. Hantxe izan genituen Ainhoa de Miguel Gipuzkoako misa, Amaia Pinter lehenengo dama eta eleganzia titulua duen misa, Mirian Bidaurreta bigarren dama eta Dana Isasa sinpatia titulua merezi izan duen gaztea.



Ikasleek ere pasatu zuten moda pasarella



BIKOITZ

- Argazkiak errebelatzen ditugu
- Estudio argazkiak egin
- Karnet argazkiak instantean
- Ezkontza erreportaiak. Argazkiak, bideoak


KALE NAGUSIA, 19 behea
☎ 30 07 27
ANDOAIN

EUSKALDUNA



Edaritegia
Bilar-jokorako aretorik
aproposena!!

Txermin kalea, 4 - ☎ 69 36 47 BILLABONA



Herriz herri


Asteasu

Joseba Elizegiren aldeko batzordea

40 milioi lortzea dute helburu

“Zer egin daiteke?” horixe izan zen Udaletxera ideien bila jo zuten lagun talde baten lehenengo galdera. Borondatea bai, baina ez zekiten nola bideratu.

Udalak herritarrei dei berezia egitea erabaki zuen. Irailak 27ko bilera hartan 100 lagun baino gehiago bildu ziren, lanerako konpromezua eskatu eta eskaini zen bertan. Geroztik osatu dira lan taldeak eta ekin zaie ekintza batzuk antolatzeari. Helburua honako hau da: Houstoneko ospitalean minbiziak jota dagoen Joseba Elizegi gaztea sendabidean jartzeko 40 milioi lortzea. Joseba Elizegiren aldeko batzordearen lehenengo saioak eman ditu dagoeneko bere fruituak: herri afarian ehundaka lagunek hartu zuten parte.



Ehundaka lagun bildu ziren afarian

Berrogeita hamar lagun ari dira gaur egun jo ta ke lau lan taldetan lan egiten. Beraiek dira ekintzak antolatzeaz ardurutzen direnak. Hauez gain, hala ere, beste asko dira laguntzeko prest euren izena eman dutenak. Besteak beste, herritar guztiei antolaketa eta emaitzen berri emateko ardura hartu dute laguntzaile eragileek.

Era guztietako proposamenak egin ziren lehenengo bilera hartan: herritarrengana eske jotzeaz gain erakunde, enpresa, bidaia agentzia, banketxe, komunikabide eta elizara ere jotzea; zozketak egitea; jaialdiak antolatzeta; kreditu bat eskatzea; telebistako lehiaketetan parte hartzea; Gabonetan, Santa Agedetan eta horrelakoetan kantu-eskeak egitea. Halaber, herriko gaztetxoek antolatu dute ia helburu bera duen antzerki saio bat. Euren eskoletan arazoaren berri eman eta ikaskide eta ikastetxeak eragiteko asmoa ere badaukate; baita Euskadi Gaztera jotzeko ere. Inguruko herrietako artistengana jo eta euren lanak eskatu ondoren enkante bat egitea izan da beste ekimenetako bat. Asmo batzuk gauzatu dituzte ia: Suchardeko pabiloian ehundaka lagun bildu zituen herri afaria edota kotxearen zozketa esate baterako.

Bono-errifa

Bono-errifa kaleratzea ere bururatu zaio batzordeari: 10.000 pezetako 1.000 bono egin dituzte. Erosleak urtebetez, alegia 12 hilabetetan, itsuen zozketa batean, hileko azkenengo ostiralekoan hain zuren ere, parte hartu eta 250.000 pezeta irabazteko aukera izango du. Bonoak badu ordea, berezitasun bat: epe jakinetan ordaintzeko aukera emango zaie interesatuei. Zozketa honekin zazpi

milioi pezeta eskuratzea pentsatu dute antolatzaileek. Honen berri ematen duen idlatzi bat ere banatu dute etxetxe. Inprimategi batzuk dagoeneko euren borondatea agertu dute, eta dohainik egiten ari dira inprenta lanak.

Udalak ere laguntzeko borondatea agertu du, eta laguntza ekonomikoa egin eta zenbait gestiotan laguntzeaz gain, inguruko beste Udalek lagun dezaten eragin nahi ditu. Azkenik esan, asteasuarrek idlatzi hau bera erabili nahi izan dutela, beste herrietako jendearengana iritsi eta laguntza eskatzeko. Asteasuko Udaletxera 69 19 07 telefonora dei dezakete laguntza emateko prest daudenak.

HONAKO KONTU KORRONTEAK IREKI DIRA JOSEBA ELIZEGIREN FAMILIARI LAGUNTZEKO:

KUTXA: 10384428

BBV: 0010286000

BANCO DE SANTANDER: 97330

CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXA:
0460005069

BANCO HISPANO AMERICANO:
2210019644

BANCO GUIPUZCOANO: 0470015856



Euskara dendetan bultzatu nahian

Denda bakoitzak hitzarmen berezia sinatuko du Udalarekin bere interes eta konpromezu mailaren arabera

Amaitu berri dute Billabonako establezimendu komertzialetan euskararen presentzia bultzatzeko egitasmoari dagokion lehenengo fasea, alegia, denda bakoitzean egin den datu bilketa eta egitasmoaren aurkezpena. SIADECOREn zuzendaritzapean burututako lan honen emaitzak aurki emango dituzte ezagutzera. Ondoren zehaztuko da Udalak denda bakoitzarekin sinatuko duen hitzarmena. Udaleko euskara dinamizatzailea den Maite Arregiren esanetan datuak biltzean dendariak harrera ona egin diete. Guztira 130 denda ingurutan aritu dira. Hemendik aurrera dendariak beraiek esan beharko dute zenbaterainokoa izango den euren dendetan euskara bultzatzeko hartu nahi duten konpromezua.

Hiru helburu aipagarri ditu egitasmoak: bizitza sozialean horren garrantzitsuak diren dendetan euskararen presentzia handitzea ahoz nahiz idatziz; enplegatuen euskara maila hobetzea; eta barne nahiz kanpo harremanak euskaraz garatuko dituen establezimendu-sarea sortzea. Egitasmo bera ari dira burutzen Ibarra, Nafarroako Malerreka eskualdean,

Ordizian, Orion, Tolosan eta Zizurkilen. Halaber, bigarren fasean "herri elebakar edo euskaldunak" bilduko zaizkie.

Billabonan orain dela bi urte inguru antzeko datu bilketa egiten aritu ziren, baina oraingo honetan datuak berriro eta informazio gehiago biltzea interesgarria iruditu zaie. Jaso duten informazio honako hau da: establezimendu bakoitzeko euskararen egoerari buruzko datu zehatzak eta hizkuntz normalizazioaren inguruko beharrak eta aukerak. Halaber, garrantzi berezia eman zaie haur eta gazteekin harreman zuzena duten establezimenduei.

Datu bilketa eginda dago

Datuak bildu eta egitasmoa aurkeztu ondoren, bigarren faseari ekin go zaio, hau da, denda bakoitzari eskaintza zehatza egingo zaio eta ondorioz, konpromezuaren onespina egin beharko du. Dendari bakoitzari bere interes eta konpromezu mailaren araberako hitzarmena eskainiko zaio, beti ere hizkuntz ezagupenaren eta establezimendu barruko hizkuntz erabilpenaren hobekuntzari begira. Hitzarmena sinatuz gero, Udalak ondorengo eskaintzak egingo dizkio dendariari: itzulpen zerbi-

tzua; euskarazko klaseak, ohizkoak eta bereziak, hau da, merkatal ikastaroak; eta hizkuntz aholkularitza euskarazko harreman sarearen antolaketari begira.

Egitasmo honek baditu, hala ere, zailtasunak: dendarien jarrera eta inplikazio, eta denda bakoitzarekin egin behar den lan berezia aipatu behar dira, izan ere, Maitek dioen bezala "establezimendu bakoitza mundu bat da". Proiektuaren segimendua eta iraupena da, bestalde, beste erroka handienetako bat, izan ere, Udalak ez du nahi egitasmoa kanpaina solte bat izan dadin, aurrera begira urtero eta urtean zehar jarraipena egin nahi zaio Euskara Zerbitzuaren bitartez.



USO - TOKI ELKARTEA

SAN MARTIN
jai zoriontsuak opa dizkizue
amasar guztiei

AMASA (Gipuzkoa)

P I L I

ESTETISIENA

Gaztelego tratamendua.
Azal lehor,
zlmur, orbsinduelarako
aproposa

KALE BERRIA, 54 - 2. ezk. - ☎ 69 13 66

B I L L A B O N A

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



Billabona eta Aldudes anaikidetze bidean

Pilota eta kultura izango dira hitzarmenaren puntu nagusiak

Billabonako Udalak Lapurdiko Aldudes herriarekin anaikidetze hitzarmena egitea dauka pentsatuta. Bi herriek pilota eta pilotazaletasunarekin daukaten harremana izan da elkartzera eragin dituena. Hitzarmenak badu, hala ere, egitasmo zehatzetan gauzatze-ko borondatea, hala nola, euskara, kultura eta turismo alorretan.

Aurtengo Udal aurrekontuetan "Pilota museo" bat sortzeko asmoz, 500.000 pezeta zeuden aurrikusita. Euskadiko Federazioa jo zuten euren asmoaren berri emanaz, eta hauek ere asmo bera zeukatela adierazi zieten, Aldudesen hain zuzen ere zeukaten museoa irekitzeko asmoa. Hori dela eta, harremanetan jarri ziren bi herriak eta anaikidetzea erabaki zuten.

Abuztuan joan ziren Billabonako zinegotziak Aldudese-ko jaietara hitzarmena izan daitekeenaren zirriborro batekin. Iparraldekoen erantzunaren zain daude une honetan Billabonako Udalan, hala ere, zurrta da aurki burutuko dela anaikidetzea.

"Laxua" eta errebotea

Hitzarmena oraindik guztiz zehaztu ez bada ere, zirriborroan bi puntu agertzen dira nabarmen: Aldudes herrian jokatzen den "laxua" modalitatearen aipamena eta errebotearena Billabonan, "era guztietan pilota euskaldunen bereizgarri gisa azalduko da" dio zirriborroak.

Bestetik, bi herrien artean elkar trukatu ditzaketen ekintza batzuk ere badauzkate ia pentsatuta kultura mailan batez ere: hitzaldiak, erakusketak, gazte eta ikastetxeen arteko harremanak izan daitezke ekintzetako batzuk. Turismoaren arloan ere zerbait egin daitekeela pentsatzen dute, inguruko toki eta herrietara bidaiak antolatu eta parajeak ezagutzera emanaz. Zehaztu gabeko ekintza guzti horiek hitzarmena egiazkoa eta hartu-emanetarako baliagarria izatea dute helburutzat.

Bukatzeko jakinarazi Billabona pilotari buruzko nazioarteko zinemaldiaren egoitza iraunkorra bilakatuko dela. Gertaera hau era berean Pilota Federazioaren laguntza eta ekimenari esker izan da. Billabonan erreboteak bereziki duen tradizioa izan da proposatzearen arrazoia. Azarorako dago aurrikusita pilotari buruzko zinema astea.

AMASAKO

SAN MARTIN JAIAK

Azaroaren 6an emango zaie hasiera Amasako San Martin jaietara eta lau egunetan zehar izango da zer egin eta zer ikusi Amasako bazterretan. Aurten Jai Batzordeak fin egin du lan herritar guztiei ahalik eta jairik alaienak eskaintzearen:

Hilaren 11an Amasako II.Mendiatloia izango da, parteharzaileek korrika eta mendiko txirringan ibilita neurtu beharko dituzte euren indarrak. Hilaren 10ean, ostegunean, oilasko jokoaren irteera izango da goizeko sei-tan. Arratsaldean ospatuko da jokoa eta dantzatuko da aureskua. Erromeria izango da ondoren. Gaueko berderatzietan oilasko jana izango da Arantzabi jatetxean.

Ostirala, San Martin eguna, haurren eguna: goizeko 10.30etan meza nagusia izango da, asto probak jarraituko dio eta bertso saioak ondoren; Agirre eta Lazkano izango dira bertan. Trikitixan Oskar eta Aitziber arituko dira. Arratsaldeko 6etan Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoak, eta ondoren txokolate jana eta goxoki banaketa. Arratsaldean, halaber, bertsolarien bigarren saioak eta txikitixak alaituko dute giroa. Arratsaldeko zortzietan III makailoa lehiaketari emango zaio hasiera. Ondoren makailoa eta sagardoa dohainik banatuko dira. Egunari amaiera emateko 11etan hasi eta goizaldera arte dantzaldia izango da Urrats taldearekin.

Larunbatarik krosarekin emango zaio hasiera. 15 urte-tik beherakoek parte hartu ahal izango dute. Herri bazkaria eguardian eta bazkal ondoren joku bereziak. 10.30etan bertsolari jaialdia izango da Mikel Mendizabal, Estixu Arozena, Gorrotxategi eta Jokin Sorozabalekin. Oraingo honetan ere dantzaldia izango da goizaldera arte Izotz taldearekin.

Igandean, azken egunean, Billabonako pilota eskolakoen artean partidua izango dira, eskuzko III San Martin txapelketaren finala gazte mailan, hain zuzen ere. Asto lasterketa ondoren. Arratsaldeko sei-tan Oinkari dantza taldearen emanaldia izango da eta ondoren herri pentatloia; trontzan, inguran, txingatan, zakukarreran eta loktxak biltzen lehiatuko dira parteharzaileak. Ondoren Amasako ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira proba izango da. Jarraian Imuntzo eta Beloki trikitilarietara izango da erromeria.

Gaueko 12etan aurtengo jaietara amaiera emateko kalejira Intxor Handiraino eta V. intxorren aldatzea.



AMASAKO FESTA BATZORDEAK

*Jai zoriontsuak opa dizkizue
amasar guztioi eta baita bertara
hurbiltzen zaretenoi ere*



Udaletxe zaharra botako dute

Lau etxebizitzako etxea eraikiko dute bertan

“Ostatu” izenez ezaguna zen eta udaletxe zaharra zegoen etxea botako dute berehala eta lau etxebizitzaz osatutako etxea eraikiko dute bertan. Bestalde, Udalak etxegileari utzitako aldameneko lurretan bi etxebizitzako beste etxe bat egingo dute. Lanak hilabete barru hasiko dira.

Udalak beretzat hartuko du lau etxebizitzetako bat. Antton Amonarriz alkatearen esanetan oraindik Udalak ez daki zertarako erabiliko duen etxebizitza, baina, beti ere, herrian larrialdiren bati edota beste beharren bati erantzuteko balio dezakeela uste du. Momentuz badaude ia bi erosle, beraz, Udalarekin batera laugarrena faltako litzateke etxea osatzeko. Etxebizitzek garajea eta ganbara daukate eta 12 milioi inguru balio dute. Halaber, aldamenean ezker-eskuin bi etxebizitzetako etxea eraikiko dute, bere baratzatxo eta guzti. Hilabete barru gutxi gorabehera hasiko dituzten lanak KEXKA enpresak.

120 urte baino gehiago

“Ostatu” zaharrak bete ditu dagoeneko 120 urte baino gehiago. 1990. urteko Santa Esteban jaietan udaletxe berria inaguratu aurretik “ostatuko” lehenengo solairuan eskola zegoen, maistraren etxebizitza eta taberna hurrengoan, eta tabernarien etxebizitza eta Udal bulegoak azkenengoan. Hala ere, lehenago ere, etxe zahar hau erre aurretik ere, bertan zeuden Udal bulegoak, edota bertan biltzen ziren herriko ordezkariak. 1990. urteaz geroztik Udaletxe zaharra itxita egon da, biltegi moduan erabili izan badute ere tarteka.



Larraulgo udaletxe zaharra

LARRAUL

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Amaia Kortajarena
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL

ERNIOBIDE
JUAN CARLOS ARICETA
ZURGINDEGIA
-Erreformak oro har
-Neurrira egindako armairuak
Agaraitz auzoa, z/g - Telf. eta Faxe 69 26 75
BILLABONA

URBIETA ANAIAK
GARRAIOAK
KALITATEZKO SU EGURRA



-Neurrira moztuta eta urte osoan
-Haritza eta pagoa
-Etxerainoko zerbitzua


GARRAIOAK ORO HAR

Larraulgo plaza, Etxeberri etxea, 1 - Telf. 69 35 76 - LARRAUL



Herriz herri

Zizurkil



“Kostata” Gazte Asanblada

Herri bat, gaztetxe bat

Aurki egingo diote gazteek eskaria Udalari

“Kostata” Gazte Asanbladak sinadura bilketa bati ekin dio Zizurkilen gaztetxe bat eskatu asmoz. 300 sinadura jaso dituzte ia, baina 500 lortzean joango dira Udal batzarrera, sinadurarekin batera eskakizuna luzatzeko. Beraz, herritarren onespena eta elkartasuna eskatzen dute eskakizun honekiko, guztientzat onuragarria baita gazteen esanetan.

Sinadura bilketa honetarako idatzi bat zabaldu dute herri guztian zehar gaztetxea eskatzeko arrazoiak azalduz. Bertan esaten denez, azken bi urteotan ekintza ugari eraman ditu aurrera Zizurkilgo Gazte Asanbladak baina positiboak izan badira ere, mugatuta sentitu dira gazteak. Izan ere, Kultur Etxeko gela batean elkartzen dira ekintzak prestatzeko, asmoak garatzeko eta abar, baina ordutegi konkretu baten pean daude eta gela batera murriztu behar dituzte beren asmoak, Kultur Etxearen antolakuntzaren menpe daudela ahaztu gabe.

“Ezinbestekoa iruditzen zaigu gazteon independentzia bultzatuko duen lokal aktibo bat” dio idatziak, beraz, beharrezkotzat jotzen dute gaztetxe bat beren ekintza eta asmoak zabaltzeko, Zizurkilgo gazteak motibatu eta finean, gazte mugimendua bultzatzeko. Azken batean, edozein gazteri zabalduetako gaztetxe bat nahi dute, gazteentzako eta gazteek antolatutako lokal bat.

Herrian iritzia eskatzen

Sinadura bilketa horren helburua herritarrek proposamen hau aztertu eta iritzi bat izatea da, nahiz eta jasotako sinadurak zenbait herritar gaztetxearen aldekoak direla baieztatu. Beraz, hemendik gutxira egingo den Udal batzarrera gonbidatzen du Gazte Asanbladak gai honen inguruan zeresanik duen edonor. Halaber, gaineratu dute oraindik ere sinadurak biltzen ari direla, eta egitasmoarekiko elkartasuna adierazi nahi dutenek sinatu besterik ez dutela.

Ainhoa Oiartzabal

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA

JOXERRA GARMENDIA MUJIKA
MARI JOSE GOENAGA URIARTE

Laskorain kalea, 16 - ☎ 65 18 78 - TOLOSA
Antxin kalea, 3 behea - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

ZIZURKIL

Jardunaldi arkeologikoak

Aurrehistoriatik hasi eta Aro modernora bitarteko aztarnak



Duela hiru urte Tolosan sortutako ekimena da "Aztarna", Gipuzkoan bakarretakoa. "Gure iragana ezagutzeko aztarnak besterik ez dugunez, gure inguruko bilakaera historikoa argitzeko asmoz" antolatu zuen orduan Oargi mendi elkar-teak bost egunetako egitaraua. "Gure nortasuna ulertu ahal izateko, beharrezkoak dira iraganeko erreferentziak, aurreko belaunaldien ondorioak" horixe da, azken finean Tolosa, Alegi, Andoain eta Billabona herrietan egindako ikerketa lan eta indusketen arrazoia. Arlo ezberdinetako ikerlariak bildu dira egitasmo honetan: arkitektoak, historiagileak, arkeologoak, paleontologoak, etnologoak eta ikerketa historikoen bitartez Aurrehistoriatik hasi eta Aro modernoRa bitartean gure herrietako arrasto fisikoak aztertu dituzte.

Orduko jardunaldiek arrakasta handia izan zuten eta horregatik ekin diote aurten ere egitarau berri bat antolatzeari. Bestalde, ez dira Tolosara mugatu eta Beterri osora inguratu dira, izan ere, Aranzadi Zientzia Elkarteko kide eta proiektu honen koordinatzailea den Juantxo Agirrek dioen bezala "duela 3.000 urte orain dauden muga administratiboak zeudenik pentsatzea zaila da", arrazoi horregatik beraz, zabaldu dute jardunaldien eremua. Herritar eta zeregin horietan ibiltzen diren erakundeen artean dagoen harreman eskasaz jabetuta hasi ziren orduan lanean, horrelako saiakerak hurbilduko zituztelakoan. Hori dela eta, orain arte bildutako ikerketa lan guztiak liburu batean bildu eta argitara emateko asmoa daukate.



Zumeako Santo Kristoa

"Jendeari iruditzen zaio arkeologia eta ondare kulturalak Greziako hondamenak eta Egiptoko piramideak bezalako monumentuak baino ez direla" dio Juantxok, "gure ondarea aberatsa da oso, eta gainera, daukagun bakarra da" gaineratu du. Euskal Herrian palcolito garaiko kobazuloak dira, ziur aski, aztarnarik ezagunenak eta aberatsenak. Hala ere, gure arbasoen arrastoak ez dira hor bukatzen, eta, horixe da hain zuzen ere, Aztarnak antolatu dituen diaposita emanaldi, hitzaldi eta erakusketen laguntzarekin ikusi ahal izango duguna.

Andoainen azaroaren 8an Buruntzako Burni Aroko kastroan egindako azkenengo aurkikuntzen berri emango du Karlos Olaetxeak, arkeologo eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak. Hurrengo egunean Pedro Pérez Zabala eta Arantxa Cuestak Elizaren ondasunari buruz egindako ikerketaren berri emango digute. Azaroaren 10ean arkeologia industrialia ezagutu ahal

izango dugu Beatriz Herrera historiagilearen eskutik. Eta 11an Anjel Armendarizek Gipuzkoako hilobi kobazuloei buruz hitz egingo digu.

Billabonan bestelakoa izango da egitaraua: azaroaren 23an Oria bailaran dauden trikuharriei buruz arituko da EHuko historiaurreko irakaslea den Joxean Mujika. Hilaren 24ean Burdin Aroko kastroei buruz hitz egingo digu Aranzadi Zientzia Elkarteko historiaurreko saileko kidea den Xabier Peñalverrek. Eta azaroaren 25ean jardunaldiei amaiera emateko Juantxo Agirre historialariak Amasako karobizuloak emango ditu ezagutzera.

Buruntzako kastroa

Buruntzako kastroko aztarnak, alegia Burdin Aroko herriska horren arrastoak, orain dela 2.500 urtekoak dira, erromatarrak iritsi aurretikoak. Tolosako Intxurrekoa izan da Gipuzkoan ezaugarri hauek zituen lehenengo aztarnategia, Buruntzako berriz, bigarrena. Garai hartako etxeak, Karlos Olaetxea adituak azaldu digunez, egungo txabolen antzekoak ziren. Hormak harkaitzetan moztutakoak, eta zoruak harkaitzen hondarrez estalitakoak.

Elizaren ondasun kulturala

Gipuzkoa osoko eliza, ermita eta parrokiak aztertu dituzte Pedro Pérez eta Arantxa Cuestak. Eraikuntzak izan ezik, gainerako elementu guztien inbentarioa egin dute: erretaulak, pinturak, bankuak, erlojuak, kanpaiak, sakristiako zilargintza, altzariak, kutxak, atabakak eta beste hamaika gauza. Nahiko egoera onean mantendu omen dira gauzarik baliotsuenak. Andoainen Santa Krutz elizako Zumeako Kristoa eta

Amasako ermitako zilargintza izan dira adituen esanetan bi elementu preziatuenetakoak.

Industrializazioak aztarna ugari utzi ditu Leitzaranen

Industriaren aztarnak

Jardunaldietan industrializazioak sortutako era ezberdinetako aztarnen berri emango da: eraikuntzak, tresneria, gerra aurretiko lantegiak. Olamia, Laborde Hermanos, Plazola eta Renfeko burdinbideak, Molela eta Portuko papelera dira eskualdean industrializazioak utzitako aztarnetako batzuk. Billabonan Salvadora eta Subijana aipatuko dira, besteak beste. Halaber, Leitzaran inguruan dauden ola zahar batzuen harrisiak ere hurbilduko dizkigute. Azken finean, Leitzaran bailaran industriak bere bilakaeran egin duen bidea emango dute ezagutzera. Ikerketa hauek arkeologiaren ikuspegi berri bat ere erakutsiko dute, izan ere, arkeologia lur azpiko aztarnez gain, lur gainekoak aztertzeke metodo bat badela ere ikusiko dugu.

Hilobi kobazuloak

Hitzaldiaren laguntzaz jakin ahal izango dugu Aurrehistoriako gizaikiak ez zituela kobazuloak soil-soilik bizitzeko erabili, baita bere hildakoak hilobiratzeko ere. Gipuzkoan ehunen bat ezagutzen dira. Dena den, ohitura hau ez dago Gipuzkoa edo Euskal Herriari mugatzerik, tradizioa penintsula eta Europa osoan zegoen zabaldua. Txikiak izan ohi dira kobazuloak eta oso toki aldapatsu eta zailtan kokatuta. Kobazulo bakoitzean ehun gorpu ere hilobiratzen zirela pentsatzen da. Garai hartan hildakoak ez zituzten lurperatzen, lur gainean uzten zituzten. Horrek asko eragotzi du arkeologo eta adituen lana, izan ere hezur asko hondatu dira urte eta



Buruntzako kastroan indusketa lanak

mendeetan zehar, eta bestalde, Elizak urte askotan ez du ametitu hezur horiek lur gainean uzterik eta lurperatu edo gorde egin izan ditu. Bestalde, hildakoekin batera zenbait tresna eta oroigarri preziatu uzten zizuten. Horiek ere garai hartako bizimoduaren berri jakiteko balio handiko aztarnak izan dira, izan ere "hildakoen munduak bizidunena isladatzen du" dio Juantxo Agirrek. Gehienbat K.a. 3.500 eta 1.500 urtekoak dira hilobi hauek. Garai beretsukoak dira trikuharriak. Hala ere, adituek ez dakite oraindik hilobiratzeko era bat edo bestea zeren araberak aukeratzeko zuten. Alkizan era honetako bi kobazulo aurkitu dituzte: Olatzazpikoa eta Zopite Behekoa. Hauez gain Andoainen ere badaude bi trikuharri, Belkoainen, Andatza megalitotegian hain zuzen ere, Eteneta II eta Usabelartza deiturikoak. Asteasun Ernio mendian bi trikuharri aurkitu dituzte: Otagain eta Zaingo Ordeka. Billabonan Itxu-peaka izeneko harrespila ezagutzen da eta Zizurkilen Ventas de Zarate izeneko trikuharria.

**"Hildakoen munduak
bizidunen mundua
isladatzen du"**

Oria bailarako trikuharriak

Orain arte behintzat, trikuharriei buruz egin diren indusketa lanak Goierri inguruan egin dira. Zein jatorri duten, noiz arte iraun duten, eraikitzaileak nortzuk izan ziren eta beste hainbat gai aztertzen saiatu dira. Gure arteko trikuharriak zaharrena orain dela 5.300 urtekoa da. Bestalde hitzaldian trikuharrietan aurkitutako materialaren berri ere emango da.

Intxurreko kastroa bederatzi urtez aztertu eta gero Andoain eta Billabona artean dagoen Basagaineiko kastroa aztertzen aritu den Xabier Peñalverrek emango digu hango berri. Berak emango digu eskualde osoko hiribilduen ikuspegi orokorra.

Amasako karobizuloak

Gaspe auzolandegiko gazteek egin dute karobizuloen azterketa. Orain dela gutxi arte eraikuntzan gehien erabiltzen zen materiala kare-morteroa zen, karea, harea eta ura nahastuz lortzen zena. Eraikuntzan erabiltzeaz gain, karea nekazaritzan, industrian eta osasungintzan ere erabiltzen zen. Kareharri ugari omen dago Amasan, horregatik dauke oraindik gure artean hainbeste karobizulo. Amasan karobiak luraren desnibela aprobetxatuz egin ziren, horrekin labea eraikitzea eta goialde eta behaldeko lana egitea erraztuz, arrapa edo bestelako اندامیو laguntzailearen beharrik gabe.

Zementua sortu zenean utzi zioten karea erabiltzeari. Honako hauetan aurkitu dira Amasan karobizuloak: Aixola, Lizarra, Larte, Florea, Muñoki, Musturiazpi, Mikel Igartza, Larrañaga, Urrezti eta Larrarte.

Amasan karobizulo ugari dago oraindik

Ibilaldi eta erakusketak

Hilaren 19an Buruntzako kastroa bisitatzeko aukera izango da. Goizeko hamarretan irtego dira Andoingo Kultur Etxetik. Hiribilduaren inguruan aurkitutako aztarnak ezagutu ahal izango dituzte interesatuek. Halaber, bi erakusketa antolatu dira; Andoainen bata, Billabonan bestea. Andoingoak, gainera, berezitasun bat izango du, izan ere hiru urte hauetan Buruntzako kastroan aurkitutako materialik interesgarriena emango da ezagutzera: buztinezko lapikoak, brontzezko ontziak, behin baten hagina... Materiale hau gutxitan ateratzen da San Telmo museotik. Oraingo honetan, alabaina, antolatzaileek Andoain herriri beren aztarna gertukoak ezagutzera eman behar zizkietela pentsatu dute. Hauekin batera argazkiak izango dira. Arkeologoen euren indusketa lanetan egindako argazkiak. Hilaren 7an hasi eta 18a bitartean egongo da erakusketa irekita. Billabonakoa, 21etik 25era egongo da ikusgai. Kasu honetan argazkiak bakarrik izango dira.

Juantxo Agirrek adierazi digunez kultur ondarea babesteko duen kultur taldeak edo elkarteak eragin nahi dituzte jardunaldi hauen ondorioz, "izan ere ondarea babestea, ez da soil-soilik erakundeen ardura". Hala ere, gogora dezagun Eusko Jaurlaritzak 1990. urtean euskal kultur ondarea babesteko legea onartu zuela. Adituen esanetan, behar-beharrezko legea, ez nahikoa ordea.

Billabona

Pintura afizio, baina ez ofizio

Kultur Etxean antolatutako aste kulturalean bere lanak ikusgai

Neumatiko eta pintzel artean ematen ditu egunak. Duela hogeita hamalau urte Extremadura, bere jaioterrik Euskal Herrira etorritako gizon honen zeregin atseginetako bat euskal paisaia lientzo edo mihisera ekartzea da. Arte lan ugari dituen arren, oraindik ezaguna ez den pintore apal honengana jo nahi izan dugu. Artista izateko ez dago zertan eskola handi batetik pasaturik, argi azaldu digu hori Xebe Iglesiasek.

Billabonan bizi da Xebe. Ez genuen oleo eta brotxaz inguratuta estudio handi batean topatu. Izan ere, Xebe Iglesias, berrogeita zazpi urteko gizon hau, berez, Lasarteko Michelin enpresako langilea da; pintore berriz, afizioz. Etxean aritzen da pintatzen eta etxean dauzka lanetarako asko, hormak apainduz. Oso kuadro errealistak dira guztiak, hemen inguruko herrietako makina bat baserri. "Erabat errealista da nik margotzen du-

dan guztia. Paisaiak eta antzerakoak. Baserriak margotzea da, hala ere, gehien-gehien gustatzen zaidana, pasionatu egiten nauen zerbait da" dio margolariak.

Caceresen jaio izanda, hango paisaiaren bat aurkitzea espero zitekeen...


X. Iglesias: Badakizu zer gertatzen den, pintura munduan sartu eta denbora gutxira konturatzen zara pintore batzuekiko predilekzioa agertzen duzula. Gehienetan gertuen dituzun horien lana ezagutzen duzu hobekien: Regoyosena esaterako, eta

azkenean, honelako artisten eta zure inguruaren eragina edukitzea ezinbestekoa da. Euskal paisaiak gainera, tonalitate asko eskaintzen dizkizu, nahiz eta pintatzea gustatuz gero, edozer gauza izan daitekeen inspirazio iturri.

"Euskal paisaiak tonalitate asko eskaintzen dizkit"

A: Nola hasi zinen margotzen?

X: Jende asko kasualitatez konturatzen da margotzeko bokazioa duela, ez da hori ordea, nere kasua. Txiki txikitatik aritu izan naiz pintatzen. Margotzea, nire kasuan behintzat berezkoa da; ez dut inorekin ikasi, gustatzen zaidalako pintatzen dut eta kitto. Baina, zenbat eta lan gehiago egiten dituzun, jakina, orduan eta galdera gehiago egiten dizkiozu zeure buruari lanari buruz. Askotan ez dakizu egiten ari zarena ondo dagoen edota hobetzeko aukera daukazun. Honela, bada, Donostian pintura ikasten hastea erabaki nuen. Irakasleak arau batzuk eman zizkigun, nola margotu beharko genukeen azaltzen zigun, beti ere bere irizpideen arabera. Etxeko lanak ere agintzen zizkigun eta saiaturen nintzen arren, sekulako "txurroak" ateratzen zitzaizkidan. Hala ere, obendiente, zintzo-zintzo, agin-



Xebe Iglesias billabonatarra

tzen zidana egiten jarraitzen nuen. Azkenean, aspertu eta hauxe esan nion: "Hara, hauek dira klaseetara hasiz geroztik egindako lanak, beste hauek berriz, lehenagotik neuzkanak, nire kontura eginak". Berak hauxe esan zidan: "Ez zaitez gehiago etorri". Orduz geroztik ikasitako guztia ikusitako erakusketei esker eta arituz lortu dudala uste dut.

A: Non eta nola margotzen duzu?

X: Ni ez naiz pinturak, pintzelak eta bestelako trasteak gainean hartuta pintatzeko aukeraturako tokira abiatzen. Behin zer margotu nahi dudana erabaki eta gero, argazki bat egiten diot dena delakoari eta honez gain, hainbat ohar hartzen ditut. Argazkian ondo antzematen ez den gauza asko egoten da. Beharrezkoa iruditzen baldin bazait, bertaraino hamar, hamaika edo behar adina aldiz itzultzen naiz.

"Ez dut inoiz lehiaketetan aurkezteko interesik izan"

Elkarrizketa aurrera zihoala, gela batetik bukatu berria duen lan bat atera du, Alkizako herriaren panoramika bat.

X: Tamaina handiko zerbait egiteko gogoia neukan, eta gustora aritu naiz. Erabilitako teknika duela gutxi ezagutu dut. Klarion eta sangina nahastuz egina da eta bolumena badaukala iruditzen zait. Hilabete honetan bertan egin dut.

Lanez gainezka dabil hilabete honetan Xebe erakusketa prestatzen. Asteburu honetan bukatuko den Billabonako aste kulturale-rako erakusketa, hain zuzen ere.



Euskal paisaiak ditu oso gustoko

Bere lanekin erakusketa egin zuen duela urte batzuk Billabonan. Sortzaile honen lana ez da ezagunegia gainerantzean, ez baitu sekula izan lehiaketetara aurkezteko interesik. Erakusketa izan daiteke, berez, Billabonako artista ezagutzeko aukera aproposa.

A: Ez al zaizu inoiz pinturatik bizitzea burutik pasa?

X: Nik orain artean nahi izan dudana margotu izan dut. Hau ofizio bihurtuko banu, alegia, nere burua derrigortuta ikusiko banu, ez nintzateke gustora arituko. Nahiago dut orain artean bezala jarraitu.

"Margotzea ofizio bihurtuko banu, ez nintzateke gustora sentituko"

Pintore izatea ez du ofizio, baina horrek ez du esan nahi bere lanik saltzen ez duenik.

X: Batzuek jakin izaten dute beren baserria margotu dudala,

eta erostea gustatuko litzaiekeela eta abar esan, eta azkenean, zerbait kobratu behar izaten duzu.

A: Zure lanak saltzeak ez al dizu penarik ematen?

X: Pena handiago ematen dit toki falta dela eta, bazter batean utzi behar izateak.

Orain arteko martxan lanean jarraitzen badu, pilatuko zaizkio berriro ere mihiseak.

X: Ez naiz egunero aritzen pintatzen. Baina aritzen naizen boladetan hiruzpalau ordu egiten ditut. Ordu gehiegi egiten baditut burua kargatu egiten zait, blokeo moduko bat gertatzen zait. Horrelakoetan onen onena hurrengo egunera arte uztea izate da, akatsak hurrengo egunean askoz hobeto ikusten baitira, nik behintzat.

Elkarrizketa honen asmoa hitzez bere pintura nolakoa den azaltzea izan da, baina ikustea bezalakorik ez dago margolari anonimo honek egiten duen lana ezagutzeko.

Idoia San Sebastian

Europa Elkarteko Nekazal Politika

Kalitatezko produktuak eta nekazal turismoa dira Euskal Herriko nekazaritzari begira ezarritako irizpideak


“Europako Komunitatea GATTeekin ari da negoziatzen irakurtzen baduzue egunkarietan, badaezpada, egin behar duzuen lehenengo gauza eskuak poltsikoetan sartzea da”, Emiliano López Atxurra ekonomista eta abokatuak joan den hilabetean Asteasun izan ziren nekazaritzari buruzko hitzaldietan bota zuen esaldi adierazgarrienetako bat da hau. Hitz argi eta lauez Europako Komunitateak nekazal arloan ezarri dituen irizpideen berri eman zuen. Ezagutzera eman zuen Komunitateak egindako maparen arabera Euskal Herria, hein handian, “nekazaritza mehatxatua” deituriko gunean dagoela kokatuta. Hortaz, eta hain zuzen ere Tolosalde eta Beterri nekazaritzak aurrera egin behar badu, bere ekoizpen egiturak aldatuz kalitatezko produktuen ekoizpen eta komertzializaziora eta ingurugiroa eta nekazaritzarekin erlazionatutako turismora zuzendu beharko ditu aurrerako egitasmoak.

Aipaturiko maparen arabera Europa osoa lau ataletan dago banatuta: egun nekazaritza konpetitiboa diren guneak; etorkizunean izango direnak; nekazaritza kolokan dauden guneak, eta inguru mehatxatuak. Lehenengoek lehentasuna izango dute Europak, Ipar Amerikarekin batez ere, aurrera eramango duen edozein negoziaketetan. Europa ipar-mendebaldea dago atal honen barruan: Britania Handia, Holanda, Belgika, Danimarka eta Frantzia eta Alemaniako iparraldeak.

Etorkizunean izango direnak, alegia, lur ona eta merkea izanik inbertsioak egin eta azpiegitura egokiak ezarri gero, nekazaritza konpetitiboa izatera irits daitezkeen guneak dira. Europa ekialdeko Ukraina eta inguruneak daude kokatuta atal honetan. Irlandan, Galesen, Mediterraneo inguruan eta estatu espainiarreko atalik handienetan berriz, dago nekazaritza kolokan. Gune mehatxatuak berriz, Txekoslovakia, Bosnia, Kroazia, Mazedonia, Montenegro, Albania, Bulgaria eta Turkia dira. Hauetan klima aproposena ez izateaz gain, ustiakuntza oso tamaina txikian ematen da.

Mundu mailako merkatua

Bi arrazoi eman zituen López Atxurrak Euskal Herriko nekazal egoera Europa mailako nekazal politikaren baitan azaltzeko; batetik, merkatua lokala izatetik, nazionala bihurtu zelako aspaldi, nazioartekoa ondoren eta mundiala gaur egun; bestetik, akordioak ere esparru horretan hartzen direlako, eta Brusselaren eskuetan dagoelako, hein handian, Euskal Herriko nekazaritzaren etorkizuna. Izan ere Komunitateak, mundu mailako hitzarmenetan oina-



Nekazaritza mehatxatua da Euskal Herrikoa

rituta, irizpideak jarrita dauzka dagoeneko; horren lekuko GATTeekin (Arantzel eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorra) burutu duen hitzarmena. Akordio horren arabera arantzelik ordaindu gabe edota arantzel murriztuak ordainduz ekarri ahal izango dira Ipar Amerika eta Hegoaldeko zenbait herritatik nekazal produktuak, “izan ere platanoak ez dira ia Kanarietakoak, Hego Ameriketako bananok dira; tomateak ez dira Almeriakoak, Marrokkokoak baizik; eta naranjak ez dira Balentziakoak iparraldekoak baizik”. López Atxurraren esanetan dauzkagun aukerak aprobetxatzea, eskaintzen zaizkigun baliabideak hartzea eta ongi gestionatzea izan behar du aurrerantzean erakunde eta interesatuen eginkizuna.

“Baserriak enpresa bilakatu behar du”

Europako irizpideek bi ardatz nagusi ezarri dituzte Euskal Herrian: kalitatezko produktuen ekoizpen eta komertzializazioa, eta nekazal-turismoa. Euskal Herriari bere

nekazal egiturak direla eta, ezinezkoa zaio kontsumo handiko merkatu bati erantzutea. Hortaz, kalitatezko produktu espezializatuari harrera ona egingo zaion merkatua behar du. Merkatu hori, Atxurraren esanetan, oso gertu daukate Tolosaldea eta Beterrik; 600.000 biztanle biltzen dituen gunea osatzen baitute Donostia eta Miarritze inguruak. Eta kontuan hartzekoa da, gainera, erosteko ahalmen handiko kontsumitzaile asko daudela gune horretan. Bestalde, gure herriak, komunikabideei dagokien ezin hobe dago kokatuta. Dena den, aukerak onak izan arren, lan egitura eta teknologia aldetik aurrerapen handiak eman behar dira oraindik. Eta batez ere, inguruko merkatuaz baliatuko den ekoizpena izango denez, produktua ekoiztu, bildu, elaboratu eta komertzializazio prozesu osoa hartu behar du beregain nekazal iharduerak. Beraz, ikuspegi enpresariala ezinbestekoa da.

”Naturak ematen du turismoa erakartzeko aukera”

Bestetik, Gipuzkoan ez dago hain egoera onean zainduta dagoen ingurunerik. Eta horrexek eskaintzen

duen aukeraz balia daiteke baserri-tarra nekazal-turismo zerbitzuak eskaintzeko. López Atxurrak argi ikusten du euskal nekazaritzaren bizi iraupena bi arlo hauei lotuta dagoela. Orain arte, Euskal Herriko baserri-tarrentzat nekazaritza lantegiko lanarekin batera egiten zuen lana eta diru iturri osagarria zen. Egungo krisi garaietan ordea, etorkizuna beste bide horretatik egin beharra dagoela uste dute adituek. “Edozein egitasmo irizpide hauen baitan egin beharra dago, bestela, nekez, izango du nekazaritzak etorkizunik”.

Dirulaguntzak

“Era honetako proiektuek jasoko dituzte Europatik dirulaguntzak” ziurtatu du López Atxurrak. Eta Europako Komunitateak nekazal iharduera bultzatzeko aurrikusi dituen 500 milioi ecu-ren (80.000 milioi pezeta) berri eman du. Laguntza ekonomikoez gain, teknologia eta aholku mailan ere izango omen dira laguntzak, “baina nekazaritzan ihardun nahi duenak baserria enpresa bat bilakatu behar duela jakin behar du” esan du ekonomistak. Honi dagokionez, Komunitateak aurrekontu bereziak onartu ditu eskoletan eta gazteen artean helburu honekin sentsibilizazio kanpainak egiteko, hala nola, baserrietaraino edota nekazal ustiakuntza guneetaraino zerbitzu informatiko eta telematikoak erama-

teko dirulaguntzak. Halaber, halako esperientziak burutu dituzten herrien arteko koordinazioa eta elkartrukea.

“Joandako garaiek ez ziren ez hobeak ezta okerragoak ere izan, baina garbi dago aurrera egiteko nekazal egiturak aldatu eta enpresa ikuspegia izan behar duela etorkizuneko baserri-tarrentzat”. Hauxe izan zen gutxi gorabehera López Atxurra adituak Europako nekazal ihardueraren baitan Euskal Herrikoari buruz, eta baita Tolosalde eta Beterrikoei buruz eman nahi izan duen ikuspegia eta argi utzi nahi izan duen mezua.



Ekoizpen egiturak aldatu egin behar dira

Joxe Mari ITURRALDE

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81



LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK

Pablo Gorosabel, 48

☎ 65 54 76 TOLOSA

Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa

☎ 59 24 11 ANDOAIN



ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22

TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA ZABALAGA TAILERRAK

Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonia 30 01 69 ANDOAIN

Andoain

Herriko seme kuttuna

Agustin Leitza hala izendatuko du ziurrenik Udalak azaroaren 6an egingo duen bilkura berezian.

Agustin Leitza Andoainek eman duen indiano ezagunena jaio zeneko hirugarren mendurrena bete da aurten eta ia ziurra da herriko seme kuttuna izendatua izango dena. Hori baina, Udalak erabaki beharko du azaroaren 6an egingo duen bilkura berezian. Izendapenaz gain zenbait hitzaldi egingo dira eta Agustin Leitzaren nahiz San Martin elizaren historia biltzen duten liburua eta 32 orrialdeko liburuska argitara emango dira. Hori guztia azaroaren lehen astean izango da.

Jose Antonio Rodríguez Ranz, 34 urteko andoaindarra arduratu da bai liburua bai liburuska kalean jartzeaz. Agustin Leitzari nahiz elizari buruz Jose Ignacio Telletxeak eta Maria Isabel Astiazarainek idatzitakoak bildu egin ditu Rodríguezek, eta bildutakoari batasuna eman dio. Liburu itxura eman dio, alegia. "Artikuluen edukia ez dut ezertarako ukitu, idatzita zegoena bildu eta borobildu besterik ez dut egin", aitortu du. 32 orrialdeko liburuska, ordea, berak landu du eta arestian aipatutako liburuen laburpena da. Rodríguezek erantsi digunez, "Telletxeak eta Astiazarainek idatzitakoak era errazago batean moldatu eta liburuska osatu dut". Hiru zati ditu: batetik, Agustin Leitzaren bizitza azaltzen da. Hala nola, Andoainen jaio eta Ameriketara joan zeneko gertakizunak eta abar. Bigarren zatian elizaren eraikuntzaren kontakizuna egiten da urratsez urrats; Leitzak dirua bidaltzen duenetik elizaren inagurazio ekitaldia egiten den arteraino. Hamabost urte inguruko kontuak biltzen dira hemen. Azken zatia arendatza, bestalde, elizak artearen ikuspegitik duen garrantzia da.



Andoaingo San Martin Eliza

zaren kokapena eta dorrea: "Herriko plazan leku nabarmenean eraiki zen, eta dorrea elizaren atzealdean dago, ez aurrean kupularen gainean eginda, ohizkoa den bezala".

Txiki Rodríguezek moldatu duen liburuska hori era erakargarri batean prestatu du, eta testuarekin batera argazki mordoak ageri da. 1.500 bat ale egin dira eta horietatik 900 inguru Andoaingo ikastetxeetako OHOk bigarren zikloko eta Irakaskuntza Ertaineko Erreformako -IEE- lehendabiziko zikloko ikasleei banatuko zaie. Gai nontzeko aleak salgai jarriko dira.

Ignacio Telletxeak eta Maria Isabel Astiazarainek Agustin Leitzari nahiz San Martin elizari buruz idatzitakoak liburu batean bildu ditu «Txiki» Rodríguezek

San Martin eliza 1759. urtean hasi zen eraikitzen eta 1770.ean amaitu zen. "Garrantzi arkitektonikoa badu, XVIII. mendeko ezaugarri arkitektoniko guztiak biltzen baititu", Rodríguezek esanetan. Hala ere, bi bereizgarritasun azpimarratu dizkigu: eli-

Agustin Leitzak 17.000 peso inguru eman zituen garai hartan eliza eraikitzeko

Nor zen Agustin Leitza?

Agustin Leitza Andoainen jaio zen 1694. urtean. Bi urte zituela umezurtz geratu eta Donostiara joan zen bizitzera. Gazte zela Ameriketara abiatu zen, Argentinako iparraldean dagoen San Salvador de Jujuy hirira. Txiki Rodríguezek azaldu duenez, Ameriketara dirua egin zuen; "dirua zuen emakume batekin ezkondu eta negozioak egin zituelako". Alabaina, ez zuen inoiz bere jaioterria ahaztu eta dirutzaren zati handi bat Andoainen eliza egiteko eman zuen. Garai hartako 17.000 peso eman zituen le-

hen txanda batean, eta eraikina amaitu artean kopuru gehiago ere bidali zuen. Eliza goitik behera eraiki zen berak bidalitako diruari esker.

Elizaren fatxadaren erdian herriko armarria duen Gipuzkoako bakanetarikoa da San Martin eliza, eta horrek garbi azaltzen du eliza herriarena dela

Hasiera batean, zenbait herritar mesfidati agertu ziren. Dirua zerbaite truke emango zuela pentsatzen zuten jendeak, hau da, elizan Agustín Leitzak edo bere familiak pribilegioak izatea nahiko zuela uste zuten herritarrek. Berak argi eta garbi idatzia utzi zuen, ordea, hori ez zela bere helburua, baita herriarena izango zela elizaren patronazgoa ere. Hori garbi geratu zedin, elizaren fatxadan

herriaren armarria ezartzea proposatu zuen" argitu digu Rodriguezek. Horrenbestez, armarria fatxadaren erdian duen Gipuzkoako eliza bakanetakoa da Andoaingoa.

Mendeurrena ospatzeko ekitaldiak

San Marin elizak eta Udalak eratuak batzorde mistoa arduratu da ospakizunak antolatzeaz. Azaroak 2, astezkenean hasiko dira ekitaldiak. Egun hoentan, «Agustin de Leyza. El bienchor indiano» (Agustin de Leyza. Indiano ongilea) Jose Ignacio Tellexea Idigorasak idatzitako liburaren aurkezpena eta hitzaldia egingo da Urigain Kultur Etxean iluntzeko zazpi terdian hasita. Azaroaren 3ko hitzaldia «Gaur eguneko parroki berri baten bila» izango da eta Jose Antonio Pagola Bikario Nagusiak hitz egingo du. San Martin elizan izango da, arratsaldeko zazpi terdian aurrera.

«El barroco en Gipuzkoa. Los Iberos. La iglesia parroquial de San Martin» (Iberotarren barrokoa Gipuzkoan. San Martin eliza) hitzaldia-ri buruz jardungo da Maria Isabel Astiazara In azaroaren 4an. Urigain Kultur Etxean izango da hori, iluntzeko zazpi terdian. Eta igandean



Txiki Rodriguez

Agustin Leitzaren omenezko meza nagusia egingo da goizeko hamarretan San Martin elizan eta Alberto Agirre abesbatzak kantatuko du. Halaber, eguerdiko hamabi terdian bilkura berezia egingo da udaletxean eta Agustin Leiza seme kuttuna izendatuko da ziu- rrenik.

Agurtzane Ormaetxea

200 urte pasatxoren buruan...

Agustin Leitzaren irudiak aurreran- tean leku berezia izango du herriko udaletxeko pleno aretoan, herriko pertsonai ospetsuen argazkiak zintzilikatuta dauden areto honetan kokatuko baita bere irudia. Hala dagokie Andoainen Seme Kuttun izendapenaz go- resten diren herritarrei. Emilio Truchuelo argazkilaria ardura- tu da irudia egiteaz eta hiru aste inguru eman du horretan. Irudia egiteko beharrezkoa izan da au- rrez Agustin Leitzaren antz, ezauga- rri eta biografiari buruzko ikerketa egi-



tea, bere irudirik ez baitzegoen. Bes- teak beste kontutan hartu da ere, esate baterako, eliza eraikitze- ko asmoz lehen harremanak egin zituenean Agustin Leiza jaunak zuen adina. Irudiarekin batera, Agustin Leitzaren oroitzapene- ko Salbea egin du Fernando Aizpuruk. Izan ere, San Martin eliza eraikitze- ko dirua ematea- ren truke bere omenezko Salbea egitea eskatu baitzuen orduan. Horretarako baina, 200 urte baino gehiago behar izan dira.


Andoain

Maite Etxezarretak *slalom-a* eta *boccia* kirolak egiten ditu

Estatu mailako txapelketan bigarren sailkatua

Maite Etxezarreta hamazazpi urteko gazte andoaindarrari bere elbarritasunak ez dio kirola egitea eragozten, are gehiago, bi kirol mota egiten ditu gaur egun, eta estatuko txapelketetan dominaren bat edo beste irabaztera ere iritsi da. Gehientzat slaloma eta boccia nahiko kirol ezezagunak dira. Horrexegatik, hain zuzen ere, jo dugu Maiterengana kirol hauen berri eman diezagun.

Maitek duela lau urtez geroztik egiten du kirola. Donostiako Aspacen proposatu zioten kirolen bat egitea, eta luzaz itxaron gabe eman zuen baiezko erantzuna. Kiroltan beretzat egokienak zeintzuk izan zitezkeen pentsa-tzen hasi, eta slaloma eta boccia egitea proposatu zioten. Etxeko eta ingurukoek ez zuten asko animatu beharrik izan, eta gaur egun lau urte igaro eta gero Maite txapeldun ere bilakatu da.



Trebezia handia behar da aulkia kontrolatzeko

Slalomak eta boccia trebezia eta kontzentrazioa eskatzen duten bi joko

Lehenengoz eta behin, eta gure ezjakituria gainditu nahian, slaloma eta boccia zer diren jakin nahi

izan dugu. Slaloma egiteko, ibilbide bat ezartzen omen da, ez ordea, ibilbide erraza; oztopoz betetako ibilbidea baizik. Kirolariak bere gurpil aulkia erabiliz oztopoekin behaztopo egin ez eta bota gabe egin behar du ahalik eta azkarren ibilbidea. Oztopo gutxien bota eta ibilbidea egiteko denbora gutxien behar duena

FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

SANHATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Termin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA

izango da garaile.

Boccia, ohizko petanka-ren antzekoa

Boccia, hitz italiarra omen da berez, eta gure arteko *petanka*-ren antzekoa da. Ohizko petanka, baina beti ere kirolari hauen ezaugarrietara egokituta. Kirolariak bolak jaurtikiz distantzia jakin batera dagoen bola txuri batera ahalik eta gehien hurbildu behar du. Eta jakina, gehien hurbiltzen dena izango da irabazle. Bietan zein duen gogokoen galdetu diogu Maiteri eta, slaloma duela gogokoen erantzun digu, izan ere aulkia kontrolatu behar izateak trebezia handiagoa eskatzen du bere aldetik, eta ahalegin horrek, nonbait, ematen dio jokoari interes handiagoa.

Astean bi orduz entrenatzen du joko bakoitzean

Donostian entrenatzen du Maitek, astean bi ordu inguru eskaintzen dizkio joko bakoitzari. Entrenamendu bakoitza berezia eta ezberdina izan ohi da: slalomean, esate baterako, 360ºko bira ongi ematen ikastea da garrantzitsua, eta baita zailena ere. Boccian berriz, kontzentrazioa landu behar izaten du gehien. Kontzentrazioa, eta ezkerreko besoa behar bezala erabiltzea, izan ere berak dioen bezala "horixe baita jokorako nire erremienta". Berak ematen dion agindua besoak ongi betetzea da Maitek jokoan ongi ari-



Maite lehiaketetan ibiltzen ohituta dago ia

tzeko behin eta berriz landu behar duen ariketa. Dena den, bere esfortzu handiaz gain, bere entrenatzaile, irakasle eta etxeko laguntza ezinbestekoa gogoratu nahi izan digu Maitek.

Espainiako txapela irabaztera Galiziara

Maite, gainera, txapelketetan ibiltzen ohituta dago dagoeneko; Gipuzkoako txapelketetan beti sailkatu izan da, eta ondoren estatuko txapelketan parte hartu izan du. Bide batez, Madrilen, Granada eta Gijonen izateko aukera ere izan du. Eta bertan egoteaz gain, Gijonetik bigarren sailkatu, eta domina soinean zuela itzuli zen Andoianera. "Aurreko urtean entrenamenduetan esker asko aurreratu nuen, eta badakit saiatuz gero askoz ere urrutirago ere irits naitekeela" gaineratu digu Maitek animoso-animoso. Momentuz hurrengo erronka Galizian izango du boccian jokatzeko, estatu mailako txapelketan. Hori dela eta,

azken bolada honetan, jo eta ke ari da etengabe entrenatzen.

Kilometroetan

Duela aste batzuk Legazpin egon zela kontatu digu Maitek Kilometroetan, eta han ere slalomean jokatzeko aukera izan zuen. Jokatu eta bera ikusteko bildu ziren guztiei jokoak uste baino zailtasun handiagoak dituela erakusteko balio izan zuen. Nonbait, saiatu zirenen artean inork ez zuen Maite irabazterik lortu.

Maite Leitzaran ikastetxean 2.IEEan egiten ditu bere ikasketak, eta kontatu digunez bere zailtasunak irakurtzea, musika entzutea eta zinemara joatea dira. Hala ere, gehien gustatzen omen zaiona lagunekin egon eta edozein gairi buruz hitz egitea omen da, aitortu digun arren, nahi baino harreman gutxiago dauzkala, besteek ezberdin ikusten dutelako.

Xabin Mujika.

Billabona

Santiago egoitza, harrera oneko etxea

Garai batean pobre eta babesgabeen aterpe eta atsedean leku

"Bazen kale erdian ospitale gisa erabiltzen zen etxea eta bertan erromes pobreek sua, ohea eta sagardoa izaten zuten". Izan ere, Billabona bere hastapenetan, XIV-XV. mendeetan erromes, bidaiari eta abenturazaleen pasabidea zen, Santio Bidean atsedean eta egonleku bilakatuz. Ondorioz, ibai ondoan merkataritza garatu eta herriak hiri izaera hartu ahala, pobre eta bestelako arloteei jana eta babesa emateko etxeren bat egokitu bide zen. Aipaturiko etxe hori dago, ziur aski, egun zaharren etxea den Santiago egoitzaren hastapenetan.

1920. urteko Udal agiri batean jasotzen da dagoneko Udalak bazeukala, aspalditik -ez da datarik zehazten- benefizentzia etxe bat, garai bateko ospitale zaharra alegia, Kale Nagusiko 20.enean. 1871an ia Billabonako Udalak Tolosako miseriakordia etxean zeuden herriko pobreak biltzeko etxe bat eraiki nahi izan zuen Juan Miguel Fernández alkate zen urteetan. 1923. urtean izan zuen bada, bere gogoia betetzeko aukera; La Salvadora deituriko lantegiko Gobernu batzordeak, Billabonako Udalak Benefizentzia etxe bat eraikitze-ko zuen nahiaren berri izanik, eta Udalak horretarako zituen baliabide eskasak eta lur sail eza kontuan hartuz, lantegiak zuen Arregi-Eneako lur zati bat dohainik Udalari uztea erabaki zuen. Arroa Pareko soroa deituriko lur zatia izan zen Udalari utzi zitzaiona.

Santiago egoitza da Gipuzkoan lehena pertsona gaituak eta ez gaituak hartzeko prestatua. 1989an jarri zen lehenengo harria eta Santiago jaietan 1991an inaguratu zen. 1948an bi monjek hartu zuten Billabonako Benefizentzia etxearen jabe goa bi monjek: bertaratu ziren lehenengoak Sor Josefina eta Sor Pilar Angeles izan ziren. Geroztik beste monja batzuk ere izan dira egoitzan.



Benefizentzia etxea

Laguntzaileak

1918koa da idatziz benefizentzia etxera eman eta jaso den lehenengo dohaintza. Urte hartan gripeak sarraskiak egin omen zituen herrian, hildakoak asko izan omen ziren. Hori dela eta, 750 pezeta eskaini ziren gripeak jota zeuden familia pobreen artean banatzeko. Geroztik ugariak izan dira egoitzak jaso dituen laguntzak dirutan nahiz beste era batean; egungo kaperapaintzen duten irudi asko esate baterako, gogo onez eman dituzte zenbait herritarrek musutruk. 1991an osatu zen "Billabonako Santiago Udal Egoitza" izeneko Udal erakundea etxea kudeatu eta zuzentzeko.

Gaur egun 31 egoiliar bizi dira Santiago etxean, billabonatarrek gehienak. Ernio Behekoak ere badira tar-tean.

Informazio iturria:

Santiago egoitzeko Zuzendaritza batzordeak argitaratutako aldizkaria.

**Aduna
Altzariak**

Altzarien erakusketa,
fabrikazioa eta salmenta



**CIRCULO
MOBILIARIO**

Elbarrena auzoa, z/g
☎ 69 15 62 - 66 - Faxa 69 34 66
ADUNA



Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61

Andoain

Irusoin, telebistarako produkzio eta postprodukzio lanak

Orain dela urte batzuk baino gutxiago bikoizten da

Sorabilla auzoko 53. poligonoan dagoen "Irusoin S.A" enpresara jo dugu telebistarako produkzio eta postprodukzio lanak egiten dituztela jakinda. Dena den, bertako sail komertzialeko arduraduna den Tomas Melero-ekin hitz egin dugu hango berri zehatz jasotzeko. ETB sortuzenean eman zituen Irusoinen bere lehenengo urratsak Euskal Herriko beste produkzio etxeak bezalaxe, eta egun ere, ETB dute bezerorik nagusia. Ingelesetik egiten dituzte bikoizketa lan gehientsuenak, eta euskarara marrazki bizidun asko bikoizten dituzte, japoniera bera jatorrizko hizkuntza dutelarik. Produkzio, postprodukzio eta bikoizketek oraindik ere etorkizunik izango dutela uste du Irusoingo arduradunak, dena den, gaur egun orain dela urte batzuk baino gutxiago bikoizten dela ere aitortu digu, izan ere, telebista publikoak nahiz pribatuak justu omen dabilta diruz.

Une honetan ETB1 emititzen ari den "Spiderman" marrazki bizidun saioa da Irusoinen lanetako bat. Dena den, ETBrentzat egiteaz gain, estatuko beste zenbait enpresatarako ere egiten dute lan, atzerrian saldu nahi dituzten produktoen promozioak eginez askotan. Orokorrean, audioari dagokionez, luze eta laburmetraiak, dokumentalak, marrazki bizidunak, irati nahiz telebistarako publizitate saioak bikoizten dituzte eta bideo industrialak sonorizatzen. Halaber, egun ETBko promozio lan guztien egile da Irusoin. Bi-

deoari dagokionez, postprodukzio lanak ere egiten dituzte, hau da, irudiak grabatu, sonorizatu edo bikoiztu, eta editatu. Besteentzat lan egiteaz gain, euren produkzio propioa ere egiten dute Irusoinen, orain gutxi egin dute esate baterako, "Los vascos y las Nuevas Indias" deritzon zazpi ataletako dokumental saioa, "Ignacius de Loiola" marrazki bizidunak eta Euskal Herriaren historiari buruzko 26 ataletako dokumentala.

"Telebistak, emisio zentruak baino ez"

Tomas berak adierazi digu Euskal Herriko produkzio etxeen lan iturri-rik garrantzitsuena ETB dela, beste bi etxerekin batera bera baita ETBri homologatutako produkzio etxe bakarra. Eta bere ustez hain zuzen ere, ETBk, beste edozein telebistak beza-


hasieratik bukaerara, arduratzen da Irusoin, alegia berak egiten ditu itzulpenak, egokitze lanak, ahotsen aukuraketa, produkzioa eta azkenik, musika eta efektu berezien edizioa bikoizketarekin batera. Une honetan 45 langile finko ari dira enpresan lanean eta 90 inguru behin-behingo. Hauek gain eurentzat lan egiten duten itzultzaile sare zabala daukate. Hizkuntzaren zuzentasuna zaintzea ardura duen pertsona bat ere badaukate eurekin.

"Bikoizken ari zarenean kezkarik handienetako bat ahots berrien beharra izan ohi da" esan digu Tomasek, "gustatzen zaigu aktore ezagun bat beti pertsona berak bikoiztea, baina Euskal Herrian enpresa batek bestera dabilen bikoizle talde bat dagoenez, ahotsak beste pertsonaia

batzuetara traspasatzen dira". Kezka hau dela eta "CEPAV" delakoarekin (Centro de Estudios Para Audio Visuales) batera ari da parte hartzen bikoizketa eskolan ahots berriak sortu nahian.

Bikoiztu, aurrerantzean ere bikoiztu egin beharko dela dio Tomasek eta beraz, enpresak aurrera egingo duela. Dena den, une honetan estadistikak aurrikusitakoa baino gutxiago ari omen dira bikoizten. ETB1aren kasuan oso nabaria omen da murriztapena hau filmec-

tan. Lehen egunero izaten ziren filmek euskaraz, egun bi edo hiru asteetan, eta askotan errepikatuak. ETB2an ere gauza bera gertatzen ari dela dio, alegia, uste baino gehiago errepikatzen dira saioak, diru arazoak direla eta.




Produkzio lan guztia egiten dute Irusoinen

la, emisio zentruak baino ez du izan behar, ekoizpena produkzio etxeen eskuetan utzi behar da", eta honetan emaitzak hobekiak eta merkeagoak izango direlakoan dago. Albistegiak ordea, telebistak berak egin behar dituela uste du.

Filme bat jatorrian egin da dagoen bezala jaso eta produkzio lan guztiaz,

Euskaltzaindiaren batzarra



Edia duela hogeita bost urte bildu zen Arantzazun euskara idatziairen batasuna oinarritzeko eta hamar urte geroago, Bergaran, Arantzazun erabakitako batasuna praktikan nola eramane zen aztertzeko. Hala ere, euskara batuak askoz ere bide luzeagoa egin du.

Garaia zen, beraz, idazleek, irakasleek, kazetariak eta administrazioak azken berrogeita hamar urteotan egingandakoaz eta aurrerantz egin behar denaz zer pentsatzen duten agertzeko Leioako batzarre horretan.

Ihardunaldi denetara joateko aukerarik izan ez badut ere, han egon naitzen egunetan gehien harritu nauena izan da entzutea eta irakurtzea Euskaltzaindiak ez duela inor bere erregeletara behartzen, izan ere ahozko komunikabideen ia erabateko askatasunaren ondoan, idazleek arau guztiak derrigor bete beharnez aurkitzen baitira eta horrela idazle horiek duten egiazko iritzia ezkatututa geratzen.

Eta konturatu naiz zenbait idazle Euskaltzaindiak araurik ez ematearen aldeko azaldu direla, beren ustez egin behar duena literaturak eta hiztunek egiten dutena bildu eta errekonozimendua ematea dela, eta oztoporik ez jarri literaturaren sorkuntzari.

Beste puntu oso eztabaidatsua, batez ere bizkaitarrek eta lapurtarrek bultzatuta, euskara batua eta euskalkiena izan zen. Benetan daude haserretuta, batez ere, bizkaitarrek, beren ustez bizkaieraren eragina euskara batuan oso eskasa delako. Arrazoi faltarik ez dute. Eta herri pozgarria izan zen jakitea talde bizkaitar bat ari dela lanean euskara batuak bere baitan hartu behar dituen bizkaierazko elementuak biltzen.

Izan ere ez daude bi euskara, euskara bakarra da. Euskara batuak gure tradizio idatzian eta euskalkietan oinarrituta egon behar du eta hizkuntz

eredu nazionala izan, euskaldunok geure arten behar bezala uler gaitzen. Baina, bestalde, euskaldunok geure euskalkia ere bultzatu egin behar dugu eta hitzegiteaz gain idatzi ere egin behar dugu. Eta ba al dago leku aproposagorik euskalkiak erabiltzeko herri eta eskualdeetan jaiotzen ari diren aldizkariak baino? Horra hor leku aproposa gure euskalkiaren esamoldeak, ezaugarriak eta elementu biziak sustatu eta zabaltzeko, eta uste dut saiatu egin beharko genukeela geure euskalkiari leku gehiago ematen.

Lehen esan bezala euskarak pauso handiak eman ditu aurrera. Atzerantz begiratzea besterik ez dago konturatzeko euskara piskanaka-piskanaka ate berriak irekitzen ari dela. Egia da oraindik ez dela zoko guztietan sartu, batez ere baditu oraingoz sartzea zail egiten zaizkion leku batzuk, enpresak direla, epaitegiak direla, etab.; horrek ez du esan nahi ordea motel, trabeska edo ezinean dabilenik.

Euskara aldatzen ari da, biziduna baita, baina ezin da nolana aldatu, mugaz kanpo aldatuz gero itxura guztiak galduko ditu eta. Eta euskara gehien aldatzen dutenak hizlari eta idazleak dira, herri xeheak betiko euskarari gehiago eutsiko diolako idazle, irakasle eta esatari askok baino. Hizkuntza zerk trakestu edo aldrebesten duen ikustea da Euskaltzaindiaren zeregini garrantzitsuenetakoa eta hori egiten du bide zuzena erakutsiz eta bide okerrak itxiz.

Euskaraz egiten dena, beste hizkuntza guztietan bezala, ulerterreza edo irakurterreza izan behar du. Baina askotan euskara zailari bota nahi izaten diogu errua geure ez jakitearen edo ezintasunaren ondorio denean. Ezin dugu beti kulpak besteci botatzen ibili. Kulpak edo errua euskaraz jakin eta hitzegiten ez duenarena da, eta erdaraz hitzegiaren poderioz bere etxeko hizkuntza erdi ahaztu eta trakestu egiten duenarena. Euskarak aurrera egingo du hitzegiten eta idazten bada, bestela bereak egin du.

**Eloi Egibar. Billabona.
Itzultzailea**

Argitalpenak

Euskarazko klasikoak nola ezagutu?

"Ez ote dago testu zahar eta klasiko horien artean apaiz eta filologo ez den batentzat gustora eta gozatzuz irakurtzeko pasarterik? Jende «arruntak» ez al luke aurkituko plazer txikiaren bat garai bateko paperen artean?". Ideia hau buruan zerabilela bururatu zitzaion Josu Pikabeari euskarazko testu zahar eta klasikoaren bilduma egitea. Hasiera batean bere institutoko ikasleei zuzentzeko asmoz bildu zituen, ondoren ohar-tu ziren testu horiek ikastetxeaz kanpo izan zezaketen interesaz, eta helburu berearekin eman du argitara Alberdania argitaletxeak antologia.

"Gure idazle klasikoek sortutako altxora gaurko irakurleari eskaintzea", hauxe da, hain zuzen ere, bere egilearen esanetan bildumaren helburua. «Euskara guztiok» liburua lau literatur euskalkietatik jasotako testu zaharren bilduma da. Hau da, 1900. urtera arte bizkaieraz, gipuzkeraz, lapurteraz eta zubereraz idatzi diren testuen antologia bat da.

Lau ataletan dago banatuta, euskalki bakoitzak bere atala du eta bertan XVII, XVIII, eta XIX. mendeetako idazle garrantzitsuenak bilduta daude. Horrez gainera zenbait esapide eta atsotitz ere badaude idatzien artean tartekatuta. Arin eta eroso irakurtzeko liburua da bere egilearen esanetan.

Hona hemen "Euskara guztiok" bildumatik jasotako bizkaierazko testu bat:

ESKATU-ESKINIA

*Peruk aurkitzen zala oyan miñez larri,
deitu eutsan Josepe zulozilluari,
jakiteko zenbat zan lurpean sartzea
iruntsi ebalako lastertxo illtea.
Zulozillak esan eutsan: "Iru dukat,
prezio au jarria aspaldian daukat".
- Ezin leike Josepe piskat merkeago?
- Zelan nai dozu Peru iru dukat baino?
- Egin nai ezpadozu Josepe batean
enaz ni bere illgo merkatu artean.*

(Felipe Arrese Beitia,
Ama euskariaren liburu kantaria, 1990)

"Euskara guztiok".
Literatur euskalkietako irakurgai hautatuak.
Josu Pikabea.
Alberdania argitaletxea.

Auzolana

Auzolana komunitatearen hobekuntzarako gizabakoaren ekimena bideratu izan duen laguntza sistema izan da euskal gizarte tradizionalan. Pertsona askok gogoratzen dute oraindik bideak, frontoiak, mendien garbiketak, egur bilketak nola egin ziren. Eta, egia esan, auzolanak oraindik funtzionatzen jarraitzen du gure herri askotan.

Asteasun, beste behin jarri da talde mekanismo hau mar-tan, baina egoera berri batera egokituta.

Lehenengo bileran gaia eztabaidatu zen, eta hortik aurrera helburua betetzeko beharrezkoak ziren ekintzak zuzentzeko lan taldeak osatu ziren.

Horrela ba, gaztetxo koadrilei Kultur Etxean egiten dituzten antzerki saioekin aurrera jarraitu behar dutela esateaz gain, orain arte bildutako dirua guztien helburua dena betetzeko emateaz hitz egiten ere entzuten zaie.

Gazte koadrilek txosnak jartzeaz eta jaien antolakuntzan parte hartzeaz hitz egiten dute.

Helduak lan taldetan banatu dira: 400 lagunentzako afa-ria antolatzeaz hitz egiten dute, zozketaren bat egiteaz, arte lanen enkanteak antolatzeaz, baita diru laguntzak lortze-ko beste bide batzuetaz ere.

Herri guztian alkartasunaren su garra piztu dela ematen du.

Horrek guztiak badu auzolanarekin ezberdintasunik: helburua oraingo honetan ez da auzolana bera, giza helburu bat betetzeko bitartekoa baizik. Hauxe da helburua: urtebete geroztik 15 urteko Joseba Elizegi gazteak daukan minbiziaren aurka Houstoneko ospitale batean borroka egiteko behar duen dirua luza gabe lortzea bere familiaren-gana itzuli ahal izateko, bere koadrilarekin batera enpa-rantzako jokoetara itzuli ahal izateko, alegia, Asteasu bere herriara lehenbailehen itzuli ahal izateko.

Teresa del Valle. Antropologa.
Erredakzioan itzulia.
Egin. Urriak 1. "Nere txanda".

Idazle batzuk idazle gara, idazten ez badugu ere, idazten ez dugunean batez ere esan-go nuke, eta zahartzen garen neurrian, dena, esan nahi dut oro, dena, guztia egiten zaigu ulergarri, eta jakina, guztia konprenitzen duena eskeptiko bihurtzen da, deus ulertzen ez duena bezala... Neuri ere gero eta gehiago ari zait gustatzen ardo, eta horri loturik dagoen ez badakit ere, gero eta hobeto ulertzen dut jendea.

Ramon Saizarbitoria
Euskaldonon egunkaria.
Hitza lauz. Urriak 16.

"Gizonek diseinatutako politika egiten dute emakumeek"

Neri berdin zait gizon, emakume zein tximino lehen-dakaritzan egotea politika berbera egiten bada. Boterean emakumezkoen mentalitatea balitz ia-ia berdin litzaidake gizonetzko bat lehendakari izatea... AEK bera emakumeen eskuetan dago, ikastolen mugimendua berdin, eta kazetaritzan gizonetzko adina emakumezko ari da gaur egun. Horregatik ez da ulertzen ENAM milaka emakumeren lana kontuan hartu gabe, baina beti lan isila da... Oraindik izugarrizko zama dugu emakumeok esparru publikora salto egiteko.

Laura Mintegi.
Egin. Urriak 16



Jonsered
Lamborghini



NEKAZAL TRESNAREN KONPONKETA
GARAGE ANOETA, C. B.

Errepidea, z/g Madrid - Irún

Telf. 69 04 02 - IRURA



MENDI
AUTOESKOLA

AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

JAIOTZAK



ANDOAIN

- Unai Paredes Pueyo. Irailak 15.
- Jon Huizi Sanz. Irailak 22.
- Nahia Madinabeitia Gabilondo. Urriak 5.
- Asier Martínez Gómez. Urriak 12.

BILLABONA

- Iker Iaregi Alonso. Urriak 7.
- Eñaut Urkola Eizagirre. Urriak 15.

ZIZURKIL

- Andrea González Mañeru. Urriak 10.

EZKONTZAK



ANDOAIN

- Luis Zabaleta eta Maria Carmen Majo. Irailak 17.
- Francisco Javier Hernández eta Maria del Carmen Jaca. Irailak 17.
- Jose Javier Zabala eta Maria Aranzazu Ieregi. Irailak 17.
- Luis Escudero eta Izaskun Mendizabal. Irailak 17.
- Miguel Angel Busto eta Amparo Alonso. Urriak 1.
- Jesus Ballano eta Marta Amatria. Urriak 8.
- Manuel Pérez eta Ana Rosa García. Urriak 8.

BILLABONA

- Juan Luis Zunzunegi eta Maria Isabel Sagastiberri. Irailak 17.
- Juan Iraola eta Maria Felicitas Mendizabal. Irailak 24.
- Jesus Suinaga eta Maria Angeles Marotta. Urriak 8.
- Juan Mari Iparragirre eta Sofia Quilez. Urriak 8.
- Jose Carlos Telleria eta Amparo Peguero. Urriak 15.
- Jose Antoinio Gisasola eta Rosario Iraola. Urriak 15.

ZIZURKIL

- Eflen Maria Elozegi eta Jaione Ariznabarreta. Irailak 24.
- Juan Cruz Hermosa eta Lurdes Salsamendi. Irailak 24.
- Carlos Gabriel de Lecea eta Ana Belen Larrañaga. Irailak 24.



ANDOAIN

- † Migel Arbizu Otaegi. Irailak 15.
- † Antonia Carrasco Márquez. Irailak 15.
- † Jose Aranburu Galdos. Irailak 25.
- † Pedro Bueno Bartolome. Urriak 2.
- † Aitor Jesus Arregi Roldan. Urriak 3.

LARRAUL

- † Donato Jauregi Irazusta. Irailak 23.


BILLABONA

- † Pablo Luis Iglesias. Urriak 9.

ZIZURKIL

- † Mikaela Urkia Elola. Urriak 4.

SUKALDE TXOKOAN



Ramon Zugasti
Arantzabi jatetxea
Amasa

Quiche Lorraine


Lau pertsonentzako osagaiak:

- 150 gramo hojaldre
- 50 gramo hirugiharre edo urdaiazpiko
- 50 gramo gazta birrin
- 2 arrautza
- 20 gramo irin
- 200 mililitro esnegain
- Gatza eta piperrautsa

- 1- Zabaldu hojaldrea erroiloaz eta 20 zentimetrotako diametroa duen tarta batentzako moldea estali.
- 2- Hondoa xaflatan moztutako hirugiharrez edo urdaiazpikoz estali eta gazta birrinez hautsezatu.
- 3- Arrautzak irabiatu. Irina gehitu eta arrautzekin nahastu bikorrik atera gabe. Ondoren esnegaina, gatza eta piperrautsa gehitu.
- 4- Moldean jarri nahasketa. Labea 150 gradu ingurutan berotu alde zurretik, eta ondoren moldea sartu. 35-40 minututan egosten utzi. Moldetik atera ondoren, eta bero dagoen bitartean zerbitzatu.

HONTZA BIDEO TALDEA

BIDEO ERREPORTAIK



EZKONTZAK
JAUNARTZEAK
BATAIOAK
OMENALDIK
JAIK
ETA ABAR

☎ 59 33 05
ANDOAIN

Ikasketak

ZIZURKIL:

Ingeleseko irakasle titulatuak klase partikularak emango lituzke. ☎ 69 05 27

ANDOAIN:

OHoko irakasle batek maila guztietako klase partikularak emango lituzke. ☎ 30 07 38

Ingeleseko klaseak. Maila guztiak. Arrate ☎ 69 08 60

Salerosketak

ANDOAIN:

Idazmakina elektriko Oliveti ET personal 55 bat salgai. berria dago ia. 15.000 pezetan salgai. ☎ 59 02 59.

URNIETA:

70m2-ko apartamentua salgai Idiazabal kalean. Goi mailako kalitatea eta zerbitzuak.

Laugarren solairua. 11.800.000 pezeta. ☎ 55 27 69. Arratsaldezu deitu.

DONOSTIA:

Apartamentu ederra salgai. Egongela eta logela ederra, sukaldea eta bainugela. Guztia oso ondo banatuta. Interesatuek deitu telefono honetara: 21 43 70.

ANDOAIN

Panasonic KX-P1180 ordenagailua eta bederatzi orratzetako inpresora matritziala salgai. Oso gutxi erabilia. Deitu telefono honetara: 65 54 50

BETERRI: Ezer saldu edo eskaini nahi izango bazenu, ez zalantzarik izan, hauxe duzu zure txokoa. Eman iezaguzu informazio zehatz eta osoa, hartara, interesatua jakinaren gainean izango da. Bestalde, ez ahaztu! Inorekin harremanetan jarri nahi baduzu, hau duzu biderik egokiena.




KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK!!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN



TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

SORTU K O O P .

Grafikak

Elbarrena Auzoa, 15 - Tel. 69 00 37 - Faxa: 69 07 58
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

OGi ZURi

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU


OGi-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELTZUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA

Zure hizpidea



GOGOAN HAR EZAZU
IRAKURLE, BIDALI NAHI DU-
ZUN KARTA EDO IDATZIA, KASU
GUZTIETAN, ZURE IZENA ETA BI
DEITUREZ ETA NORTASUN AGI-
RIAREN ZENBAKIAREKIN LA-
GUNDU BEHARKO DUZULA. ERA
BEREAN, ZURE HELBIDEA JAKI-
NARAZ IEZAGUZU, ARREN!

Gure irakurleen gutunik ezean, Manuel Larramendi andoaindar ospetsuak idatziriko gutun hau ezagutaraziko dizuegu sail honetan. Bat baino gehiago saiatu da ezaugarri hauek jarraituz Larramendiren erretratoa egiten. Inor animatuko balitz, gustora jasoko genuke ezagutzera emateko.

LARRAMENDIREN ANTZA

Ni hirurogei ta amairugarren urtean sartua nabil, zartu naiz, ez ordea oraindikan elzartu (chochotu, caduco): burua daukat soilla, baña fresko ta sendo, aurpegia zimurrik gabe, aoa ortz (guziarekin) ederrakin, kolorea zurigorri ederrarekin (ala esan oi didee nakustenak); eskribitzen aztu etzait, eta ardorik iñoiz ez, beti ura edaten dedala. Orra pintatu nai banauzu, nere antza.

(Manuel de Larramendi,
Carta a Gandara, 1763)

36

LAGUNAK

KARROZERIA

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

EGA S.A. ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK
TXAPA ETA PINTURA



BRONTE

ZENTRU OPTIKOA BILLABONAN

ZURE IKUSMENA GRADUATZEN DUGU
KONTAKTU LENTEAK
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA
TOLOSA-DONOSTIA



ZUBi

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL



Zabala

Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



HOL - ATZ



VACSOL - WIR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Agaitz auzoa, 2/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
BILLABONA

Ageltsaritza

M. USABIAGA

Leku eder Etxea - Elbarrena Auzoa
☎ 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (GIPUZKOA)

Hauteskunde fikzioa


Politika fikzioa egita egokitu zait oraingo honetan: hauteskunde eguna baino lau egun lehenago ari naiz lerro hauek idazten, baina hauteskunde emaitzak zehatz-mehatz zein izan diren jakinaren gainean irakurriko dituzu zuk, AIURRI aldizkariaren zenbakia atera berria beaurrean daukazun horrek. Kanpainari buruzko gora-beherak ahaztuta izango dituzu honez gero eta, orain hamar egun -niretzat gaurkanpainan aritu ziren berberak orain niretzat hamar egun barruzertan ari diren asmatzen ahaleginduko naiz, atrebentzia handia ez bada.

Aztia izan beharrik ez dago artikulu honek argia ikusten duenerako Jose Antonio Ardanza jeltzalea Gobernu osatzeko kide bila ibiliko dela aurrikusteko. Inkesta guztiek esan zuten jeltzaleek gehiengo alde handi samarrarekin lortuko zutela. Eta inkestek, zer gertatutako den igartzeaz gain, gertaerak alde batera edo bestera gerta daitezzen laguntzen dute. Inkestek hala gertatu behar zuela bazioten, beraz, hala gertatuko zen, gertatuko zenez. Hautesleok erremediorik jarri ez badiogu, beraz, Ardanza Ajuria-Eneako jaun eta jabe izango dugu beste lau urtetan. Eta hamar eginak ditu lehendik.

Gehiengoa lortu ez duten hautagaietako batzuk Ardanza Enean barkatu Ajuria-Enean-, ate joka eta ostatu eske izango dira honez gero. Garaikotxeak gobernu abertzalerako koalizioa proposatzeko lehen baino zailago izango duela uste dut, ez baita izango, HBrekin bat egin ezean, garai bateko hirukoitz abertzalea osatzerik. Baina, hala ere, EAJ eta EA gutxiengoko gobernu osatzeko moduan direla aldarrikatuko duelakoan nago, oposizioan hainbeste urte egin izanak alderdia gehiegi ajatu duela jakitun baita. Ez diote, ordea, jaramonik egingo.

PP ere ate joka izango da Ajuria-Enean, sekula baino parlamentari gehiagorekin, edozein konbinaziotan parte hartzeko prest, lau urtetan Jaurlaritzako kide izateak emago dion protagonismoak indar horri eusteko edo areagotzeko aukera emango diolakoan. Mayor Orejaren proposamenei ere ez diete arreta handirik jarriko, ez PSE-EEk eta ez EAJk.

Elkarri kristorenak eta bi esaka ibili dira kanpaina osoan jeltzale-sozialistak, dibortziorako tenorea heldu zaiela erakutsi nahian. Kolore bakarreko Gobernuaz hitz egin dute jeltzaleek kanpainan. Akaso oposiziora pasatzeko garaia heldu dela adierazi dute, aldiz, hautagai



sozialista batzuek, Jaurlaritzan aritzeak diskurtso propioa garatzea galerazi omen die eta. Kanpainan botatzeko ez dago gaizki baina, bere neurriko soinekoa sozialisten hari-matazak ere behar ditu.

Egia da 22-25 legebiltzarkideren sostengu hutsarekin osa dezaketela gehiengo osorik gabeko Jaurlaritzak. Baina ez zaie komeni. Arzalluz eta konpainiak nahiago dute tarteka gobernukideekin liskarrean ibili, sozialistak egunero oposizioan edukitzea baino. Sozialistek, aldiz, badakite Jaurlaritzan segitzeak dituen desabantaila baina handiagoak direla abantailak. Zartagine-tik irten eta euren burua sutara botatzea bezala litzateke oposiziora joatea. Azken finean, dibortziorako tenorea beharrean adiskidetzekoa heldu zaie, atzera, sozialista-jeltzaleei. Eta hala ez bazan, sar dadila kalabazan.

Imanol Murua

*Euskaldon Egunkaria-ko
kazetaria.*

AIURRI

**ESKUALDE OSOKO
ETXEETARA IRISTEN
GARA HILERO !!**

ZURE PUBLIZITATEA BEHAR DUGU

LAGUN IGUZU AIURRI ALDIZKARIA ARGITARATZEN !!

Txiste lehiaketa

Abendua bitartean AIURRIK antolatu duen txiste lehiaketan parte hartu nahi baduzu, era honetako txisteak, edo graziosoagoak bidali behar dizkiguzu:

PINTTO

Behin neska batek bere mutila gonbidatzen du bazkaltzera eta, bazkaltzeko babarrunak zituzten. Honela, bazkal ondoren neskaren aitak mutilarekin musean egin behar zuela, eta hasten dira.

Halako batean mutilari puzker abat botatzeko gogoia etortzen zaio. Bota du, eta aitak: "Pintto!".

Mutilak bere artean: "Ederki! Zakurra dela uste du".

Handik piska batera berriro botatzeko gogoia etortzen zaio, bota du, eta aitak berriro: "Pintto!".

Mutila: "Seguro, zakurra dela uste du, ederki!".

Bota du puzkerra beste behin. Izugarritzakoa oraingo honetan.

Eta aitak: "Pintto! Alde egin ezak hemen-dik, bestela zerri honek itoko hau!".

TRENAK ETA ARDIAK

Behin baserritar bati ardiak harrapatu omen zizkion trenak eta, herrira joan zen bere ardiak erreklamatzera. Baina udaletxea baino lehenago jostailu denda bat omen zegoen eta bere eskaparatean tren txiki bat omen zebilen biraka. Gizona sartzen da segituan dendara eta tren hura txiki-txiki egien du. Dendariak haserre bizian erotu al den galdetzen dio. Eta gizonak erantzun:

- Hauek txikitan hil behar dira, bestela handitan...

HERRIKO FESTETAN

Herriko festetan kale bazterretan jartzen diren paisa edo moro horiekin gertatu zitzaigun pasadizu hau:

Bagindoazen ni eta nire laguna bat kaletik eta horietako moro batekin egin genuen topo. Ordulari polit bat zeukatela, eta galdetu diogu:

- Zenbat balio du ordulari horrek?

Eta berak:

- Todo a trescientas.

Eta nire lagunak:

- ¿Vaca cuánto?

Xabier Mugika beasaindarra



Hilero AIURRIko erredakziobatzordeak hautatutako txisterik bixi, xeble eta txispagarrienak kaleratuko ditugu. Txisteak hilarren 20a baino lehen helarazi behar dizkiguzue zuen izen-abizenak eta telefonoa adieraziz.

Gure irakurleak dibertitzeaz gain, bi sari eder jasotzeko aukera izango dute irabazleak:

1- Andoingo AITZBELTZ elektrotresna dendak eskeinitako "Compact diksman" paregabe bat.

2- Asteasuko "PATXINE" jatetxean bi lagunentzako afari bat.

Urtarrilleko alean emango ditugu ezagutzera irabazleak

ANDOAIN:

Diapositiba emanaldiak eta hitzaldiak Urigain Kultur Etxean 7.30etan:

Azaroak 8: Buruntzako Burni Aroko kastroa. Azken emaitzak. Karlos Olaetxea arkeologoa.

Azaroak 9: Elizaren ondasun kulturala Andoainen. Pedro Pérez Zabala eta Arantxa Cuesta.

Azaroak 10: Industri arkeologia Andoainen. Beatriz Herreras.

Azaroak 11: Gipuzkoako hilobi kobazuloak. Anjel Armendariz.

Azaroak 19: Buruntzako kastroa bisita. Irteera: goizeko 10.00etan Kultur Etxetik.

Azaroak 7-18 arkeologiari buruzko argazki eta materialen erakusketa.

BILLABONA

Azaroak 23: Trikuharriak Oria bailaran. Joxean Mujika.

Azaroak 24: Burdin Aroko kastroak Oria bailaran. Xabier Peñalver.

Azaroak 25: Amasako kobazuloak. Juantxo Agirre.

Azaroak 21-25: Argazki erakusketa.

ANDOAIN

Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta:

Azaroak 13: Ibilaldia Fermin Leizaola etnologoarekin. Irteera goizeko 8etan.

Diapositiba emanaldiak arratsaldeko 8etan Urigain Kultur Etxean.

Azaroak 15: Xabier Albisturren diapositiba emanaldia.

Azaroak 16: "Artzainak" Gema Arrugaetak eskainita.

Azaroak 17: Harrikutzeko kobazuloei buruzko emanaldia. Luis Ignacio Gonzálezek eskainita.

Azaroak 18: "Araban zehar"

Azaroak 19: Felipe Uriarteren "Alaska". Arratsaldeko 6etan.

Azaroak 20: Urbelarrera ibilaldia eta Amasan bazkaria.

ANDOAIN

Azaroak 20: "Kalabaza Triponzia" filmea haurrentzat arratsaldeko 6etan La Salleko aretoan.

ZIZURKIL:

Azaroak 7-11: Euskal ilustratzaileen erakusketa Kultur Etxean 4etatik 8etara.

BILLABONA-ZIZURKIL



Saridunak

Banatu dira Bilalbona-Zizurkilgo argazki lehiaketako sariak: Zuri-beltzeko argazki sailean Altsasuko Cruz Mari Martinez izan da irabazlea eta 25.000 pezetako saria jaso du. Bigarren sariduna Mikel Lasa adunarra izan da, eta 15.000 pezeta jaso ditu. Koloredun argazki sailean 25.000 pezetako lehenengo saria Juanjo Aranburu zizurkildarrak jaso du, eta 15.000 pezetako bigarrena David San Martin aginagatarrak.

Orremendi
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162

ANDOAIN

Andoaingo baserriak

Aurrekoan jartzen nuen Buruntza bailara zela handiena, baina orain atera duten "Andoaingo toponimia" liburuan Leizotzi erantsi dizkiote Ubane eta Leitzaran erreka inguruak. Horrela beraz, Leizotz dugu handiena; Txitxarrain, Lekiazabal, Txutxurrutegi, Araztegi, Muñtegi, Agirre borda, Penadi, Lekunategi, Antzizu (2), Antzizu borda, Aitzaga, Aizmendi, Aizmendi txiki, Aizmendi berri, Belategi, Mizpiri (2), Leunda, Asu (2), Garagorri, Etxebeste (2), Etxamuño goiko eta beheko, Muñagorri, Etxabe, Garro berri ta zaharra, Baltzuketa (2), Baltzuketa txiki (2), Galar-di (2), Urbillondo, Maxartegi, Mantxone, Benezi, Artola borda, Ubane, Kaxka beltza, Auzokalte, Sasierrota, Erdiko borda, Sagamuño, Baltzun (2), Iulia, Sasine, Presaburu, Olaberri, Errekaondo, Larrabide, Amane, Borda txiki, Olazahar, Etxarri, Antzizahar. Hirurogeita bi guztira.

Gaur egun herrogeitan bakarrik bizi dira. Bost kale etxe egin dira inguru horietan. Hamaika zeharo lur jota daude. Hogei nekazaritzan ari dira.

Bailara hau Adarra, Onddo, Usalartza, eta Aizkorriko mendien babesean dago.

Hurrengoan emango dugu Goiburu eta Sorabillako berri.

Joxe Eizmendi





BER TSO TAN

*Hauxe da nere leben aldia
bona idazten dudala
ta lana ondo bete nabi nuke
zuek merezi bezala
eskertu nabi det AIURRitarrek
egin duten eginabala
bilabetero kaleratzea
ez baita marka makala
BETERRItarron barrobi da ta
luzaro jarrai dezala. (bis)*

*Nik LARRAMENDI ELKARTEAri
jarri nabi diot arreta
dena euskaraz argitaratzen
gogor saiatzen da eta
aldizkariko orriak datoz
berri berriez beteta
gainera dohain egiten dute
bori ez da berriketa!
Denok harpide izatea da
lortu nabi luketen meta. (bis)*

Doinua: Bizia ez da neboiz egoiten.
Neurria: 10ko bandia.

Amaia Agirre. Billabona.



PATXINE JATETXE

Errementari kalea, 1
20159 ASTEASU
☎ 69 10 25



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXEKO POSTREAK



**ELEKTROTRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**

Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - faxa 30 03 45
ANDOAIN

GURE LAYBIDE, S.L.

NEKAZAL TRESNERIAREN SALMENTA ETA KONPONKETA



Motozerra zaharraren abonoa
14.631

54.358 pezeta
BEZ eta guzti
Tarifa prezioa: 68.989

AGRIA

STIHL®



Motozerra zaharraren abonoa
16.625

66.461 pezeta
BEZ eta guzti
Tarifa prezioa: 83.086



Motozerra zaharraren abonoa
26.540

104.983 pezeta
BEZ eta guzti
Tarifa prezioa: 131.523


Husqvarna

Kubota

YAMAHA

1994ko Abenduaren 31ra arteko eskaintza

RIKARDO ARREGI



GIZONA eta GARAIA

ANDOAIN 1969 - 1994

Azaroak - 22, 23, 24, 29, 30.

Abenduak - 1.

ANTOLATZAILE:



M. LARRAMENDI
KULTUR BAZKUNA



BABESLEAK:
ANDOAINGO UDALA eta
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Kultura eta Turismo Departamentua

